

Kontzeju

www.oñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



Boletina



Oñati Irratia

Oñatiko Udal aldizkaria | 2017ko Urtarrila | 268. zenbakia



DELIA

'GIZA ESKUBIDEAK. KONPONBIDEA. BAKEA'

Urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egin du Oñatiko Sarek



AXIER UGARTE IMAZ / Sarekidea

“Giza eskubide guztiak errespetatuak izatea berandu baino lehen, urgentziaz, lortu beharreko zerbait da”

‘Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea’ lelopean **urtarrilaren 14an** Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia luzatu du Oñatiko Sarek

Hatz erakuslea altxatu eta hemen giza eskubideen aldeko herri bat dagoela erakustea da SAREk deitu duen manifestazioaren helburua. Milaka hatz batera altxatuz, urrats berriak ematea presoek giza eskubideak errespetatu daitezkeen aldarrikatzeko, eta gatazkaren konponbideari beharrezkoa den bultzada emateko, behin betiko eta justiziazko bakea lortze bidean. Axier Ugarte Oñatiko Sarekideak eman digu ekimenaren berri.

Bilboko manifestazioan ahalik eta jende gehien batzea da helburua, baina, aurretik, girotze saio bat antolatu duzue Oñatin bertan, ezta? Bai, urtarrilaren 14ko mobilizazioari babesa emateko aukera oñatiar guztiei zabaldu nahi diegu eta horretarako ekitaldi parte-hartzaile bat antolatu dugu urtarrilaren 7rako. Bertan, ‘Nik ere salatzen dut’ kanpainarekin bat egin eta oñatiarrok ere,

behatz erakusleak altxatuz, preso, iheslari eta deportatuak giza eskubideen urraketak salatzen ditugula adieraziko duen argazkia atera nahi dugu. Goizean zehar, musikaz girotuz, mahai iaformatiboa jarriko dugu plazan, eta 13:00etan gaztelekuan bilduko gara gogoeta batzuk partekatu, bertsotan aritu, herritarrekin eginiko bideo batzuk ikusi eta bildutakoekin argazkia ateratzeko.

Giza eskubideen urraketek dagokienez nolakoa da presoek egoera une honetan? Jasanezina dela esan dezakegu. 360 presotatik Euskal Herriko kartzeletan 2 besterik ez egotea, edo 11 preso gaixotasun larriekin kartzelan egoera negargarrian mantentzea, edo 22 preso gainerako euskal presoengandik isolatuak egotea, duela bost urte 12 zirenean, edo 70 urtetik gorako presoak espetxean jarraitzea (Joseba Oñatiarra



Bilboko mobilizazioari babesa emateko ekitaldia egingo dugu Oñatin urtarrilaren 7an (gaztelekuan, 13:00)



Jasanezina da 360 presotatik Euskal Herriko kartzeletan 2 besterik ez egotea, edo 11 preso gaixotasun larriekin kartzelan mantentzea

horietako bat), edo zigorra beteta duten 8 presori Frantziako kondanak ez kontuan hartzea (Alberto iheslaria Oñatira ezin itzuli ahal izateko arrazoia).

Giza eskubideen nazioarteko eguna ere pasa zen abenduaren 10ean eta askotan urruti gertatzen diren eskubide urraketetan arreta jartzeko joera izan ohi dugu halako egunetan. Irmoki gaitzesten ditugu horiek, baina gertukoak salatzerakoan, jendarte eta norbanako bezala, ozenago egin beharko genukeela uste dugu. Giza eskubide guztiak errespetatuak izatea berandu baino lehen,



urgentziaz, lortu beharreko zerbait da.

Nola lagundu dezakete herritarrek bide horretan?
Era askotara, gehiago edo gutxiago inplikatur. Kontuan hartu behar dugu Sare jendartea aktibatzeko tresna bat dela. Sarekide batzuk hilean 2 edo 3 aldiz elkartzen gara eta ateak zabalik daude edonorentzat. Beste batzuek egun jakin batzuetan konprometitzen dira eta beste askok preso eta iheslarien egoera konpartitzen dute familiakoekin, lankideekin, lagunekin ... Guztiok osatzen dugu sare herritarra eta denok gara beharrezkoak. Gurekin harremanetan jarri nahi duenak sareonati@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Bideo bat ere prestatu duzue, oñatiar askoren mezuak bilduz. Zein helbururekin? Sentsibilitate ezberdinetako hainbat norbanako prest agertu dira bideo hau grabatzeko. Ikasleak, irakasleak, artistak, aktibistak, politikariak, kazetariak, musikariak, kirolariak, langileak, erretiratuak, elizako jendea ... guzti hauek aldi berean hatzak altxatu eta 'nik ere Salatzen Dut' esateko prest daudela erakutsi dute. Bideo honekin, urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestazioaren leloarekin (Giza eskuubidea). Konponbidea. Bakea) bat egiten duten, baina joateko zalantzak dauden oñatiar mordoxka bati bultzadaxo bat eman nahi izan diegu.

Bilbora joateko BUSa



Oñatin egun hauetan egongo dira salgai autobuserako txartelak:

EGUNAK: urtarrilaren 5etik 12ra

ORDUA: goizez (11:30-13:30) / arratsaldez (19:00-21:00)

LEKUA: Kale Barria 9 (Kiku goxoki denda eta Gereta artean dagoen lokalean).

OHARRAK: Goizeko autobusa 10:00etan irtengo da, eta arratsaldekoa 15:00etan. Enpresagintza fakultatetik (Ibarra) abiatuko da autobusa.



Oñatiarrok ere salatzen dugu

URTARRILAK 7, GAZTELEKUAN, 13:00



Urtarrilaren 7rako ekitaldi parte-hartzailea antolatu du Oñatiko Sarek. Bilboko mobilizazioari babesa emateko aukera herritar guztiei zabaltzea da asmoa. Gaztelekuan izango da ekitaldia (13:00). Musikak girotuta, gogoeta batzuk partekatu, bertso batzuk abestu, hainbat herritarren testigantzak jasotzen dituen bideoa ikusi, eta bildutakoekin argazkia aterako da bertan. Oñatiarrok ere 'Salatzen dut' kanpainarekin bat egiten dugula adierazteko modua izango da, behatz erakusleak altxatuz, preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen urraketak salatze modua.

ESKAINNTZA 90€ BEREZIA
Guztia barne

EZKONTZETAN Etxe-Aundi
2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

18,3 MILIOI EURO

2017ko aurrekontua onartu du udalbatzak, EH bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz



18.386.811 euroko aurrekontua izango du udalak 2017an, bukatu berri den urtean baino 1,5 milioi gutxiago (-%7,53). Abenduaren 22ko osoko bilkuran onartu zen aurrekontua, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Finantza ikuspegitik aurrekontu orekatua dela azaldu zuen Mikel Biain alkateak, sarrera eta gastu arrunten (gehi amortizazioa) arteko aldea positiboa (888 mila euro) dela azpimarratuz. "Azken urteetan (2009-2016) aurrezki arrunta minimoa izan da, krisiaren ondorioz, baina 2017an goranzko bideari ekin dio".


Pertsonal gastuen atalean 322.000 euroko igoera dago, kale garbiketako langileen kontratazioari dagokiona, neurri handian, baina aldi berean FCCren kontratuari zegokion 491.000 euroko gastua desagertzen dela argitu zuen alkateak.

Inbertsioetara ia 3,5 milioi bideratuko dira, iaz baino %25 gutxiago. San Martinen eraiki asmo diren etxe tutelatu inbertsioa (926.000) 2018ra atzeratu izana da arrazoi nagusia, alkateak azaldu zuenez. "Gizarte Zerbitzuen Mapa egiten ari da Eusko Jaurlaritzza, eskualde bakoitzean dauden premiak aztertzeko, eta diagnostiko hori amaitu arte inbertsioa atzeratzea adostu dugu oposizioarekin".

Inbertsioei aurre egin eta udal aurrekontua orekatzeko 2,5 milioiko maileguaren beharra aurreikusten da udal aurrekontuetan. Dena den, 2016ko likidazioa egin ondoren zehaztuko da maileguaren zenbatekoa.

Edozein modutan, udalaren egoera ekonomikoa ona dela adierazi zuen alkateak. "Gipuzkoan zorpetze maila apalena duten herrien artean dago Oñati". 2016ko abendua 1,3 milioiko zor biziarekin itxi du udalak, eta 2017an beste 400.000 euro amortizatuko ditu.

AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA



■ KOMUNIKAZIOA ETA PARTEHARTZEA	796.480,98
■ GIZARTE ZERBITZUAK	1.759.969,82
■ KIROLA	1.212.669,03
■ KULTURA	1.099.162,55
■ BARNE ANTOLAKETA	6.602.560,20
■ SOZIOEKONOMIA	571.210,44
■ LURRALDE ANTOLAKETA	5.411.080,48
■ AISIALDI HEZITZAILEA	933.678,25

MAPFRE
Oñati

Portu kale, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

ARRI *Orain Oñatiarron zerbitzura!*

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

2017ko EGITASMO NAGUSIAK

3,5 milioi bideratuko dira inbertsioetara



“Iazko aurrekontuarekiko %7ko jeitsiera badago ere, gastu soziala %2,4 igotzen da”

Hona hemen 2017ko aurrekontuetan jasota dauden egitasmo nagusietako batzuk.

ELTZIAKO ETA ETXALUZeko PARKEAK

Dotazio ekonomikorik handiena izango duen inbertsioa Eltziaiko parkean (ETEO zaharra) izango da. ‘Olaran Paisaia’ proiektuaren lehenengo fasea izango da. Ur-jolasak eta helduentzako aktibitate guinea bateratuko dituen aisialdi parkea egokituko da bertan (496.000).

Etxaluze osteko jolas parkea ere eraberrituko da (275.000) eta Korreoseko jolas gunean tirolina eta skate-a jarriko dira (50 mila).

OLAKUA, SAN LORENTZO ETA ZUBILLAGA

Olakua auzoko urbanizazioa berritzeko lanak egingo dira (262.000) auzotarrekin adostuta. San Lorentzo (250.000) eta Zubillaga (160 mila) auzoen berritze prozesuan ere fase berri bana egingo da.

(Beste 50 mila euroko diru atala bideratuko da herriko gune ezberdinetan egin beharreko irisgarritasun lanetarako.

SAN LORENTZOKO BIDEGORRIA ETA HERRIBUSA

Mugikortasunaren arloan San Lorentzo eta Ugarkalde arteko bidegorria (240.000) egokituko da, herriko bidegorri sarea osatuz. Herribus zerbitzua esleitu egingo da (150.000) epe ertain-luzerako.

Bestalde, Torreauro-Madalena guneko bidegorrian komun publikoa egokituko da (50.000).

H.A.P.O.a eta ZARATA MAPA

Oñatiko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra garatzeko 80.000

euro bideratuko dira, eta herriko Zarata Mapa egingo da (25.000), herriko jarduera ezberdinen (tabernek, lantegiek, trafikoak...) eragin akustikoa neurtzeko.

Herriko gune historikoaren azterketa (etxebizitza eta lokalen egoera) egingo da (20.000) berau biziberritzeko neurriak hartzeko abiapuntu bezala.

Olaitturriko jolasgunearen inguruko proiektua (25.000) ere egingo da, jolas-lekua berritu eta, azpian aparkalekuak egokitzeko aukerak aztertzeko. Udaletxeko leihoak berrituko dira (60.000) energia efizientzia hobetzeko, eta Olakuako dorrean sormen eta ekintzailetasun guinea egokituko da (35.000).


ARRETA SOZIALA

Gastu soziala %2,46 igotzen da, iazkoarekin alderatuz. Gizarte larrialdietarako partidak %4,29 egiten du gora, eta esku-hartze psikosozialarenak %3,49.

Gizarte Zerbitzuen barne-antolaketa prozesuarekin jarraituko da, herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena emateko asmoz. Ildo horretan, etxebizitza sozialen kudeaketa esleitu egingo da (12.000).

SORMEN ETA EKINTZAILETASUN GUNEA

Enplegua eta ekintzailetasunari bultzada bat emateko asmoz, sormena eta ekintzailetasuna sustatzeko guinea prestatuko da Olakuako dorrean (10.000). Ildo berean, langabetuei zuzenduta profesionaltasun ziurtagiria lortzeko ikastaroak (36.000) antolatzen jarraituko du udalak. Eta merkataritza arloan, errelebo generazionala sustatzeko diru atala jaso da.



Eltzia (ETEO zaharra) aurreko berdegunea berritu egingo da. Ur-jolasak, piknik guinea eta helduek ariketa fisikoa egiteko guinea egokituko dira bertan (496.000 euro).

AUZOTASUNA ETA AUZOTAXIA

Auzoak, Landa Garapena eta Ingurumen batzordeko aurrekontuak %13,10-eko igoera du.

‘Auzotasuna’ programarekin jarraituko da (100.000) eta auzo bakoitzak autonomia izango du egoki ikusten dituen gastuak eta inbertsioak egiteko.

Landa auzoetako bizimodua hobetzeko ahaleginean, auzo-taxi zerbitzua mantenduko da (20.000). Gainera, Migelena poligonoan autobus geltoki segurua egokituko da (50.000).

Landa eremuan interneterako sarbidea bermatzeko ‘Guifinet’ egitasmoa garatuko da, eta arautegi bat egokituko da eguer kargalekuak eta bideen erabilera egokia arautzeko.

Herri onurako mendietarako (Aloña, Artia, Araotz-Txirikillaleku, Iturrigorri) aurretik egindako Ordenazio Planarekin jarraituko da (48.000) herriko ganaduzaleekin elkarlanean.

HONDAKIN BILKETA

Atez ateko bilketa optimizatzeo neurriak hartuko dira, batez ere, haizeak eragiten dituen endreduak sihesteko helburuarekin. Konpost-gune komunitarioetan hobekuntzak egiteko partida bat ere jaso da (15.000).

INBERTSIO NAGUSIAK

» Ur-jolasak
Eltzia parkean
496.000 €

» Etxaluzeko
parkea berritu
275.000 €

» Olakua auzoa
260.000 € eta
San Lorentzo
250.000 €
berritu

» San Lorentzo
-Ugarkalde
bidegorria
240.000 €

(hurrengo orrira)

Ingurumen arloan, hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuz, Natur Eskolako leihoak eta berokuntza sistema berritzeko diru atala jaso da (70.000).

HERRI CURRICULUMA

Hezkuntza arloan, herri mailako dimentsioa hartuko duen Herri Curriculumua proiektua garatzen hasiko da (30 mila).

Herriko ikastetxe eta guraso elkarrean jarduna diruz laguntzeko 87.000 euro bideratuko dira eta hezkuntza arloko beste proiektuek jarraipena izango dute: haur etorkinen integrazio programa, Hezkuntza Mahaia, Helduen Eskolarako laguntza...

SANTA ANAKO KUDEAKETA

Santa Ana antzokiaren kudeaketa lehiaketa bidez esleituko da (31.000), eta bertako instalazioak (kamerinoak, komunak...) berritzeko diru atala bikoiztuko da.

Herriko kultur taldeen jarduna diruz laguntzeko programa mantendu egingo da (70.000) eta baita kultur sustapenera zuzendutakoa ere (90.000).

EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko azken urtea izango da. Gainera, udazkenean Oñatin egin zen kale-erabileraren neurketaren emaitzak ezagutuko dira, eta horrek erradiografia eguneratua izaten lagunduko du.

Udaletxeko erabilera planarekin jarraituko da, UEMAren 'Gailur' mailara iristeko helburuarekin.

KIROL INSTALAZIOAK

Kirol instalazioetan hobekuntzak egiteko diru atala (111.000) jaso da. Horrez gain, aurrekontuetan islada zuzenik ez duten bi lan inportantea egingo dira aurten: batetik, herriko kirol instalazioen analisia egin eta lehentasunak markatuko dituen talde eragilea sortu da; bestetik, Kirol Hastapena (Kirol Estola) arloan eredu aldaketa gauzatu da.

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

Berdintasun sailak %25eko



Etzaluzeko osteko parkea berritzeko 275.000 euroko diru atala jaso da 2017ko udal aurrekontuetan

igoera izango du. Jabekuntza Eskolaren kudeaketa bere gainhartuko du udalak, eta parte-hartze prozesu baten bidez landuko da estola eredia.

Berdintasun Plana garatzeko 61.200 euro bideratuko dira. Gobernantza hobetzeko eta emakumeen partaidetza sozio-politiko bultzatzeko neurriak aplikatuko dira, besteak beste, eta indarkeria martxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta zerbitzuen koordinazio protokoloa egingo da.

GAZTE LOKALAK

Gazteen aisialdiko lokalak erregularizatu eta araudira egokitzen laguntzeko dirulaguntza lerro bat (40.000) onartu du udalak, eta gazteen emantzipaziorako dirulaguntza lerroa (45.000) ere mantendu egingo da.

Ludoteka eta gaztelekuaren kudeaketa kontratuek izango dute pisurik handiena Gazteria sailean. Mantendu egingo dira aisialdi partehartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra bultzatzeko programak.

HARRERA PROTOKOLOA

Oñatin bizi diren identitate eta jatorri soziokultural ezberdineko herritarren arteko bizikidetzak bideratzeko helburuarekin prestatu den Harrera Protokoloa aplikatzen hasiko da aurten.

PARTAIDETZA

Balorazio urtea izango da. Azken urteetan burutu diren prozesuak ebaluatu eta sistema bat definitzea izango da helburua: zeinek eta zertarako parte hartu? Zertan eta zein gunetan parte hartu? Nola? Zein funtzioekin?

INBERTSIO NAGUSIAK

» Zubillaga auzoa berritu
160.000 €

» Herribus zerbitzua
150.000 €

» Herriko Zarata Mapa
25.000 €

» Sormen eta ekingintzailetasun gunea
45.000 €

EAJK aurrekontuen aurka bozkatu zuen, berak aurkeztutako 37 proposamenetatik gehienak onartu gabe geratu direlako

Bi arrazoi nagusi eman zituen EAJren udal taldeak bere ezezko botoa arrazoitzeko. Alde batetik, jeltzaleek aurkeztu dituzten 37 proposamenetatik gehienak albo batera geratu izana. Bestalde, 2016ko ekitaldirako konprometitu ziren inbertsioen exekuzio maila baxua salatu zuen EAJK. "Aurrekontuetan jasotako 3,6 milioitatik 1,6 milioi bakarrik (%44) exekutatu dira. Eta hori ikusita, ez zaigu egokia iruditzen 2017ko aurrekontuetan beste 3,5 milioi programatzea inbertsioen atalean". Planifikazio faltaren ondorio dela salatu zuten jeltzaleek, eta agintaldiaren amaiera bitarteko Plan Finantzieroa egitea eskatu zuten.

Aurrekontuen tramitazioan EH Bilduk izandako prozedura ere kritikatu zuten jeltzaleek. "Guk dokumentu bat aurkeztu diegu 37 proposamen zehatzekin, eta gobernu taldeak ez digu berea aurkeztu idatziz", adierazi zuen Lourdes Idoiaga bozeramaleak.

Gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuei dagokienez, kiroldegirako inbertsio partidarik ez egotea salatu zuen EAJK; "urteak daramatzagu igerilekua handitzeko premiaz hitz egiten eta, beraz, ez zaigu egokia iruditzen horretarako partida zehatzik ez egotea".

Bestalde, EH Bilduk 'Zaraten Mapa' orokorra egitea proposatu duela ikusita, EAJK insistitu du lehentasuna ematea Kale Zaharra eta San Anton guneari, "baina, tamalez, ez dugu erantzunik jaso" adierazi zuen Idoiak.

OPOSIZIOAREN IKUSPUNTUA

Ondoren, EAJk arukeztutako 37 proposamenak azaldu zituzten arloz arlo. Proposamen gehienak herritarrengandik jasotakoak direla azaldu zuten.

HONDAKIN BILKETA ETA ROTAZIOKO APARKALEKUAK

Hondakin bilketa edukiontzi bidez egitea proposatu du EAJk, erosoagoa eta merkeagoa delako, eta atez-atekoarekin besteko birziklapen maila lortzen delako, Arrasaten erakutsi duten moduan.

Errotazioko aparkalekuetako denbora muga ordu batetik bira igotzea eskatu du EAJk.

ETXEBIZITZEN INSPEKZIO TEKNIKOA

50 urtetik gorako etxebizitzek Inspekzio Teknikoa pasatu eta obrak egin behar dituztenez, eta kontutan hartuta etxe hauetako askotan ahalmen ekonomiko txikiko pertsona nagusiak bizi direla, dirulaguntza lerro bat zabaltzea proposatu du EAJk.

OLAKUA ETA SAN LORENTZO AUZUNEA BERRITZEA

Olakua-Olapoto auzuneko eta San Lorentzoko 12-24 zenbakien eremuko urbanizazioa berritzea proposatu du EAJk, eta begi onez ikusi du lehentasunez jasoko dela aurrekontuetan.

BIZIKLETEN ORDENANTZA

Bizikleta eta partineten zirkulazioa arautuko duen ordenantza urgentziaz egitea eskatu du EAJk, eta kritikatu du bost urte darabala EH Bilduk ordenantza hau atera barik.

KALEKO ARGITERIA

Bidaurreta-Olapoto, Arboleda, Motxon eta beste gune batzuetan argiteria hobetzea eskatu du EAJk, bereziki Berdintasun Planean puntu ilun bezala jasota daudenak.

Ildo berean, plazako frontoi inguruko jolas gunea eta landa auzoetan dauden gune ilunak, batez ere paseo-lekuak direnak,

argizatzea eskatu du EAJk. Ildo horretan, pasealeku naturaletan (Zuazola, Asentzio/Maala/Aias-tui...) komun publikoak jartzea ere eskatu dute jeltzaleek.

UDAL BARRUKO ARAUDIA ETA PARTAIDETZA

Udal barruko Araudi Organikoa egitea proposatu du EAJk, udal taldeen betebeharrak eta eskubideak jasoko dituenak, besteak beste.

Bestalde, herritarren eta udal ordezkarien parte-hartze demokratikoa bultzatzeko eta erabakien gardentasuna eta eragin-kortasuna bermatzeko helburua duen ordenantza egitea proposatu du.

IGERILEKU IREKIA

Kirol arloan, igerileku ireki bat (aisialdi gunearekin) eraikitzeke proiektu zehatza egitea proposatu du EAJk. Horrez gain, San Martinen korrika egiteko bidea egokitzea, eta rokodromoa homologatzea ere proposatu dute jeltzaleek.

Kiroldegian adineko pertsonentzako gimnasia-aparatuak jartzea eta Eskola Kiroleko teknikariei zuzendutako ikastaroak (*bullyng*-aren prebentzioa, motibazioa...) antolatzea eskatu dute.

KULTURA ETA EUSKARA SARIK

Arlo horietan herritarrek egiten duten lana aitortzeko, Kultura eta Euskara Sariak sortzea proposatu du EAJk. Eta beka bat ematea euskara batuaren sorreraren inguruko ikus-entzunezkoa egiteko (2018an beteko dira 50 urte Arantzazun sortu zela).

Santa Ana aretoko komunak, kamerinoak eta ekipo teknikoa berritzeko, eta garbitasun orduen maiztasuna areagotzeko diru atala handitzea eskatu du EAJk.

Biktimen inguruko 'Gogora' institutoaren programa DBHko ikasleei eskaintzea ere eskatu du.

UDALEKU TEKNOLOGIKOAK

12-18 urteko gazteentzat udaleku



“2016rako 3,6 milioi euroko inbertsioak iragarri zituen EH Bilduk, eta 1,6 milioi bakarrik exekutatu ditu, planifikazio faltaren ondorioz”

“Urteak daramatzagu igerilekua handitzeko premiaz hitz egiten, eta ez dugu ulertzen horretarako partida zehatzik ez egotea aurrekontuan”

teknologikoak (robotika, bideo-sorkuntza, dronak...) martxan jartzea proposatu du EAJk, eta urtean zehar ikastaro ezberdinak antolatzea: sukaldaritza, Hip-Hop euskaraz...). Herriko zenbait guneetan ping-pong eta xake mahaia jartzea ere proposatu du.

Gazteen aisialdirako lokalak ordenantzara egokitzeko dirulaguntza lerroa onartu izana begi onez ikusi du EAJk, “nahiz eta berandu etorri, eta guk nahi baino murriztazaileagoa izan” azaldu zuten jeltzaleek.

Gaztelekuaren erabileraren inguruko ordenantza bat egitea ere eskatu dute jeltzaleek, eta jaietan gaztetxoentzako sokamuturra egotea.

KONTZILIAZIOA SUSTATU

Lan munduan emakume eta gizonen arteko kontziliazio erantzukidea bermatzeko ekintza plana egitea proposatu du EAJk.

EKINTZAILITASUNA ETA TURISMO PLANA

Langabetuentzako profesionaltasun ziurtagiria lortzeko ikastaroak antolatzea, ‘lanzadera de empleo’ dinamikak antolatzea, eta ekintzaileei zuzendutako tutoretza espezializatuak kontratatzea proposatu dute jeltzaleek.

Merkatari, autonomo, enpresa txiki-ertain eta lehen sektoreko profesionalen lehiakortasuna bultzatzeko berrikuntza teknologikoak txertatzeko (*e-commerce*, *Cloud* plataforma...) programak antolatzea eta belaunaldi arteko erreleboa sustatzeko laguntzak.

Udal zerbitzuetan lehiatila bakarra sortzea proposatu du EAJk, prozedurak arintzeko.

Bestalde, Oñatiko Turismo Plan Estragikoa egitea eskatu du EAJk, ostalaritza eta merkataritzaren sustapena ardatz izango duena.

ESPERIENTZIAREN ESKOLA

Hirugarren adinekoei begira, ‘Denbora bankua’ eta ‘Esperientziaren Eskola’ antolatzea proposatu du EAJk, besteak beste. ■

PISA txostenak alarma piztu du hezkuntza sisteman

Hiru urtetik behin 15 urteko neska-mutikoei egiten zaien PISA (*Programme for International Student Assessment*) nazioarteko ebaluazio txostenaren azken emaitzek alarma piztu dute hezkuntza komunitatean. Sekulako emaitzarik kaskarrenak lortu ditugu Zientzietan, Matematiketan eta Irakurmenean. Hezkuntzan gehien inbertitzen duen erkidegoa da Euskadi, baina emaitzak Espainiako bataz bestekoaren azpitik daude. Herriko ikastetxeetako ordezkarien ikuspuntua bildu nahi izan dugu:

1.

Nola baloratzen dituzu PISA txostenaren emaitzak?

2.

Zerk huts egiten du eta zer hobetu behar da Euskadiko Hezkuntza sisteman?

Zigor Ibarzabal / Txantxiku ikastolako zuzendaria

1.- Harridura, tristura, ardua izan ziren berria ezagutu eta biziako emozioak. Emaitzen irakurketa sakona egin behar dugula uste dut, gure ikasleen daturik esku artean izan gabe baina frogak utzitako ebidentziei ez ikusia egin gabe.

Ez naiz ni izango PISA frogek duten sinesgarritasuna zalantzan jarriko duena, hala ere, badira kontuan hartzeko ezaugarriak: konpetentzia matematiko logikoa, linguistikoa (irakurketa) eta zientifikoa dira PISA frogak neurtzen dituenak eta konpetentzia horien urteetako garapenaren balorazioa egun bateko frogaren emaitzetara mugatzen da. Bestalde, frogaren diseinua berdina da egiten diren munduko herri guztietan, gizarte bakoitzak duen errealitatera doitu edo egokitu gabe eta ikasleen profila inondik inora kontuan izan gabe.

Behin hori argituta, onartu beharra dago: emaitzak txarrak dira. Irakurketa aunitz egin daitezke gaiaren harira baina ondorioak behar ditugu. Datuak ezagututa, gure eredia



hobetzeko aukera gisa interpretatu behar ditugu. Gure sistemak aldaketak behar dituela agerian utzi du eta hezkuntzaren etorkizunean begirada jarri eta aldaketarekin jarraitzea dagokigu orain profesionaloi.

2.- Egun dugun espainiar legeak ez ditu gure beharrak asetzen, ez ditu gure hezkuntza sistemaren ezaugarriak eta egindako aurrerapausoak integratzen eta mugatu egiten gaitu. Hezkuntza lege propio baten

beharra dugu, Euskal hezkuntzan eragile garen guztion artean adostu eta diseinatutakoa, gure sistemari iraunkortasuna eta sendotasuna emango dion legea. Tokian tokiko errealitatea integratuko duen Curriculum proiektu bat behar dugu; ikasleen behar eta interesetan oinarrituko dena. Hezkuntza ez da agintean dagoen partiduak jolaserako, interes propioetarako erabil dezakeen gaia. Has gaitezen bada sortzen, hausnartzen eta adosten; erakargarria eta motibagarria bezain zaila den prozesuaren hasieran gaude.

Edurne Ugarte (Ikasketa burua) eta Leire Iturrioz (Zuzendaria) / Zuazola-Larraña BHI (Urgain eskola)

1.- PISA ebaluazioak, Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean dauden 15 urteko ikasleen egungo gizartean parte hartzeko beharrezkoak dituzten ezagutza eta trebetasunak ebaluatzen ditu. Ikasgelan ikasitakoa arazoaren ebazpenean, eta egoera ezezagunen aurrean nola aplikatzen duten ezagutu nahi da ebaluazio honen bidez.

EAE-n. Hezkuntza Sailak aukeratutako ikastetxe batzuk lagin bezala hartuta egiten da ebaluazio hau. Gure ikastetxean ez dugu egin, ez 2015ean, ezta 2012an ere. Beraz informazioa PISA-ko web orritik atera dugu.

"Pisa 2015. Resultados Clave" txostenaren 3. orrialdean aipatzen da ebaluazio honen bitartez ezin dela identifikatu kausa-efektu erlaziorik ebaluazioaren emaitzen eta Hezkuntza politika ezberdinen artean (Horretarako aldagai ugari izan behar bait dira kontuan, ez bakarrik ebaluazio honetan kontuan



izandakoak). Baina emaitza hauek bai balio behar dietela hezkuntza arloan lan egiten dutenei, arduradun politikoei, etab. Hezkuntza sistemen antzekotasun eta desberdintasunak ezagutzeko.

Gure ustetan, zalaparta handia sortu da emaitza hauen inguruan, eta juxtu aurreko paragrafoan aipatutakoaren kontrakoa gertatu delakoan gaude.

Honelako frogak edo ebaluazioetan, emaitzetan erreparatzeaz gain, garrantzitsuena, hobekuntzara eramango gaituen hausnarketa bat egitea da. Eta horren ondorioz, lanean hastea.

2- Hainbat aspektutan dago hobekuntzarako tartea. Etengabekoa izan behar den hobekuntza hau lortzeko ezinbestekoa izango da Hezkuntza Komunitateko kide guztiok (Hezkuntza Saileko arduradunak, irakasleak, familiak...) elkarri entzutea eta elkarrekin lan egitea.

Juankar Olaeta / Elkar Heziko zuzendaria

Garatzekoak:

- **Axola** (izan) zaigu?; ezagutzen ditugu ikastetxeak? herrikoak?...? EAEkoak hortik datoz, ezagutu eta hobetu behar.
- **Joera** EAEko 2013-2015 Diagnostiko Ebaluazioetako emaitzetan aurrez antzemana: larria matematikan, "tragikoa" euskaran.
- **Zuhurtzia** balorazioan, irizikeriak bazter. ISEIk* badu azterlana: serie historikoa, sistemaren beste zenbait adierazle ..., argazki osoa zein?.
- EAEn, inklusibitatean ondo, bikaintasunean eskas. Ikastetxe barruko ebaluazio/kalifikazioetan eta promozio adierazleetan onenariakoak versus kanpo ebaluazioetako konpetentzia-emaitzak gero eta okerragoak(!!!); **nork bere buruari tranpa egiten ote?**
- Adimen (H. Gardner) eta konpetentzia guztiak ere ebaluatu behar eta aztertu, **personaren garapen integrala helburu**. PISAkoak, garrantzitsuak izanik, %25a dira gehienez ere.
- Konpetentziak eskuratzeko curriculum formal (eskola), informala (familia), eta ezformala (gizarte arloa), ezinbestekoak dira, **denok erantzule/eragile**. Beraz, sail arteko politika publikoak behar dira, adibidez familia-lana kontziliazio alde.
- "Aberats berrien" **balio aldaketa**. J. Font psikiatrak: "El bienestar del bienestar": Konpetentzia espiritual? Erresilientzia?



- **Murrizketen eragina?** Bai, baina ez erregresio zuzenean (ikus beste herrialde batzuetakoak)
- **Inbertsio maila?** Gehiago, baina eraginkorrago behar. Gure BPG*aren azpitik gabiltza baina gure inbertsio-maila bera egiten duten herrien emaitzen azpitik. Eraginkortasun ezako nitxoak ditugu: gardentasuna eta erantzukizuna behar ditugu baliabide publikoen erabileran, ISEKa* gogoan, hezkuntza komunitate baita, emaitza orokorren atzean "ezkutatu" gabe.
- **Hezkuntzaren merkantilizazioa** dugu, neoliberalak: eskaintza eta eskaera lege, 'bezeroak' erakarri nahian, gero eta merkeago (eskatu) eman. Ondorioa: emaitzak!!? Plazaratzeko beldurra.... Jaiotza-jaietsiera dator: merkeago ipiniko?
- **Marketing/moda baino**, nazioarteko hezkuntza komunitate zientifikoak egiazaturiko hezkuntza jarduera arrakastatsak oinarri hartu.
- **Hobetze-plan koherentea** egina dago, 2016ko ekainean. Ezartzea erronka.
- **Gure Hezkuntza Sistemaren Lege** berria: elkarrekin, datuen gainean eraikia (konpetentzien emaitzak -kanpo/barru-, inbertsioen efikazia eta efizientzia...), eta ekitatea baina baita bikaintasuna helburu.

*ISEI: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea /*BPG: Barne Produktu Gordina / *ISEK: Indize Sozio Ekonomiko Kulturala



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus

🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Oñati: 943 71 61 60
Donostia: 943 50 76 65

Donostian etxea nahi?

lortu ezazu zurea
Think & Tak!! -ekin

Informazio gehiago:
www.donosttak.com

>> Elkarriketa **MIGUEL MAIZTEGI**, ganaduzalia

“Garai batian Levante aldera saltzen ziran zaldi asko”

Santa Lutzia Ferixan zaldixen epaille lanetan jardun dau aurten be Migel Maiztegik

Abenduaren 13an Zumarragako Santa Lutzia ferixan ikusi geben Goiko Bentako Migel, zaldi, bihor eta moxalen lehiaketako epaille lanetan, iragoko hogeitaka urtietan lez. Ganadu-tratuan, eta bildots-narrua nahiz ardi-ulien salmentan ibilittakua da bera. Garai bateko ferixak eta Goiko Benta nahiz Arantzazuko beste hainbat konturi buruz jardun dogu berarekin.

Noiz eta zela hasi ziñan epaille lanak egitten?

Hogeitaka urte izango dira. Garai batian ganadu-tratuan ibiltten giñan, eta norbaittek emungo otsan Zumarragako udalari nere barri. Naparruatik (Auritz-Burgete, Elizondo...) be hots egitten nostain, eta Agurain-Salvatierrara (Araba) be urte askotan fan izan naiz.

Baiña Zumarragako ferixara aurretik be faten ziñan, ezta ?

Bai, hamabost urteko mutikua nintzanetik. Aittarekin faten nintzan. Moxal buru batzuk hartu eta oiñez, Kataberatik buelta faten giñan, edurrik ez baeguen; bestela, kamiño, Urtiagaiñetik Aiastuira jaitsi eta handik gora, Udako atajuak hartuta.

Zumarragan ez ezik, Nafarroa eta Arabako ferixetan be egin izan ditu epaille lanak Migelek

Batzutan, egunian bertan urtetan geben, goizeko 4retan abixau eta 10etarako han. Beste batzutan bezperatik faten giñan. Zumarragako estaziño onduan eguen Kaminpe base-rrixan ganaduak sartu eta *Paraiso* hotelian pasaitten geben gaba. Bertan egoten ziran Levante aldetik etorritako ganaduzaliak. Afalostian ittueran fan eta hantxe egitten gittuan tratuak. Gero Renfen bagoi bat enkargau eta trenez eruaten zittuain ganaduak Levante aldera. Hemengo moxalak gura izaten zittuein, txiki samarrak, karro batetik tiraka naranjak batzeko eta ortu lanetarako. Castilla aldera be asko saltzen zan.



“Bildots-narruak eta ardixen uliak be asko balixo euen sasue batian”

Gaur egun eztago orduko salerosketarik, ala?

Ez, ziharo aldatuta dago. Lehen lanerako bihar izaten ziran zaldixak, baiña gero motorizaziñua etorri zan eta kitto. Orain okelatarako bakarrik saltzen dira, baiña kontsumua be ez da askorik gehittu... Eskerrak Italia aldera saltzen dirala.

Hemen bertan be sasue batian gehixago ebalten ziran zaldixak, ezta?

Jakiña! Garai batian monturako zaldixak be hazten gittuan Goiko Bentan. Eta batez be kargarako ebalten ziran. Lehen Urbixara zaldiz faten ziran artzain danak. Zapaturu Oñatira etorten ziran merkaura, eta hemen zaldi-illaria egoten zan Milikua taberna aurrekaldian suministrua Urbixara igoteko. Orain eztozu artzainik ikusi be egitten; Arabatik bueltan ibiltten dira Land Roverrian.

Ganadu-tratuan ez ezik, narrua saltzen be ibilitakua zara.

Bai. Bildots eta ardi narrua ondo ordainketan zan garai batian. Inguruko baserrittako narruak batu, eguzkittan ondo sikatu, eta pillla bat egitten zanian peleterixa edo kurtiderixaren batera saltzen geben. Gehixen bat Bartzelona aldera faten zan, guantiak eta zapatak egitteko. Inghaterrara be bialketan ziran sasue batian; oso modan egon ziran larru-buel-tako txaketak eta urte batzutan oso preziatua izan zan bildots narrua.

Ardi-uliak be dirua balixo eben orduan, eta komisionista ibiltten nintzan; inguruko baserrittan, Urbixan eta Gorbeia



aldian ardixen ulia batu, eta labanderixetara saltzen neben. Iruñan eta Caceresen eguen bana. Gero eurak Inghaterrara saltzen euen, alfonbrak-eta egitteko.

Zaldixak gutxittu, baiña beste animala batzuk ugarittu egin dira inguru honeittan, ezta?

Eta zela gaiñera! Orturaiño etorten xaku basaurdiak kipulia jatera. Problema haundixa dakogu gero! Oker haundixak egitten dittue zelaittan-eta.

Lehen etzan bapebe egoten, basuak zaindu egitten ziralako. Ikatza egitten zan baso danetan eta ez eguen ez basaurderik, ez orkatzik. Basurde bat agerketan zanian auzo dana faten zan ondorian, harrapo arte. Orain berriz, plaga moduan jarri da. Basuari kasu gutxi egitten xako;



Oñatiko II. Artzain Txakur Txapelketan parte hartu eben Migelek. Arrazako txakur onenaren sarixa jaso eben Jaiki txakurrak. Ezkerrian, ardixairi ulia mozten eta idi pariarekin egur-karriuan agiri da, aitta, eta anaia Jesusekin.

jentia perretxikotara bakarrik faten da, zona batzuetara, eta basuak dagoz jareta, ziharo. Eta, jakiña, orkatzak-eta ekarri zittuain repoblaitteko, eta gehittu dira ikaragarri.

“

Urbixako artzainak zaldiz etorten ziran zapaturu Oñatiko Ferixara. Zaldi illaria egoten zan Milikuaneko aurrekaldian

Naturazalia izan zara beti, eta badakit txikittan basoillarraren kantua entzutera faten ziñala. Bai, pagadittan ibiltten zan basoillarra (*urogallo*). Goizian oso goiz fan bihar izaten zan kantuan entzuteko. Ederra izaten zan. Askotan fanda nago mutikotan. Gaur egun eztago.

Usua be askoz gehixago ikusten zan hemen. Basuetara etorten zan pago-ekurrak jatera. Orain berriz, Frantzian eta Europa aldi girasola egoten da berandu arte jaso barik, eta

(hurrengo orrialdera)

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

nahikua janda pasaitten dira hemen ixa geratu barik.

GOIKO BENTA Arantzazuko lehenengo bentia

Arantzazuko Goiko Bentako semia zara. Noizkoa da etxia? Seguru eztaikit, baiña XVI. gizaldixan jasotakua da, ama-birjiñia agertu eta laisterrera. Arantzazuko lehenengo bentia izango zan. Garai batian gure etxe ondolik euen Arantzazuko sarrerria, eta etxe honetan ittua eguen, ordezeko animalixekin; zaldunak etorten ziranian, aldatu egitten zittuain zaldixak bidian jarraiketako San Adrian-go kaltzada aldera.

Arantzazuko Ama Birjiñaren irudixa be Goiko Bentan egon ei zen garai baten.

Hala ei da, bai. Lehenengo karlistadan Arantzazuko santutegixa erre euen liberalak, eta ama birjiñaren irudixa gure etxera ekarri ei euen. Ondiok be 'Ama Birjiñaren kuartua' dako izena gure etxeko logelatako batek.

Gero, geure etxia bera be erre egin zan, eta orduan Bidaurre-tara eruan euen irudixa, nun-bait.

San Inazio bera be zuenian egon ei zan Manresarako bidian.

Hala ei da, bai. Oteiza hemen egon zanian be, miresmenez esaten eben: "Donde estuvo San Ignacio!".

Hortik etorriko da, segurue-nez, gaur egun oraindik bizirik dauen ohittura bat; Mendekos-



Españaiko Informaziño eta Turismoko ministro zan Manuel Fraga agiri da Goiko Bentatik urteten, 1967ko San Juan egunian Urbixara egindako bisittaldixari ekin aurretik.

teko pazkoa egunian Zegama-ko erromesak etorten dira Arantzazura. Ehunka lagun. Eta mezatara fateko Goiko Bentatik elizaraiñoko bidia egitten daue San Inazioeren mar-txia joten, euren estandarte eta banderakin.

Gehixenak bezperatik aille-gaitten dira, peregrinaziñuan, mendiz. Eskista ondoko Ama Birjiñiaren itturrixan bazkaldu egitten daue: saldia, filete boka-dillua, frutia eta anis-koñaka. Astuan ekarten dittue janarixa eta gaiñetiko trastiak. Garai batian abadia eta alkatia be zal-di gañian etorten ziran, gu mutikuak giñanian.

Arantzazun lo egin eta hurrengo egunian faten dira mezatara. Zegamarrak lotura haundixa dakoi Arantzazure-kin. Arabarrak be bai; Barrun-dia eta Asparrena aldekuak ago-rreko bi zapatutan etorten dira.

“

Jorge Oteiza bi urtian bizi izan zan Goiko Bentan, eta San Inaziok berak ere bertan pasau ei eben gaba, Loiolatik Manresarako bidian

Azken urte honeittan 'Inazio-eren Erromesbidea' (Loiola eta Manresa artian) inddartu guran dabiltz. Igarri dozue?

Bai, asko. Mundu daneko erro-mesak dabiltz, eta gurera, kon-kretuki, australiar asko ingura-ketan dira.

Oteiza aittatu dozu lehen, eta bera izan zan Goiko Bentan euki dauen bezero ilustriene-tako bat. Zela gogoraketan dozu?

Oso jeniala zan Oteiza, bere jenixo eta guzti. Rekuerdo asko dakot, baiña ezin danak hemen esan. Bi urtian egon zan hemen bizitten, eta denbora horretan beste artista asko be juntaitten zan bertan: Lucio Muñoz, Lara, Ibarrola... Oteiza ikustera baka-rrik be jende asko etorten zan, eta aprobetxaittera be bai; oso eskuzabala zan Jorge, eta asko-ri emuten osten jaten.

Behin, goguan dakot, izuga-

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

rri hasarratu zala. Basilika aurrian kate sendo batzuk jarri zittuain, burdiñazko pilote batzuri lotuta, eta horreik ikustian sutan ipini zan: “*si parecen guardias civiles!*” esaten eben. Kendu eragin osten danak, eta gaur egun dagozen harrizko blokiak jarri zittuein.

Etxeko ostatuan be jardun bihar izan dozu. Eta badakit, oso bazkari berezi bat zerbitzatu zebela Arizkorriko tontorrian. Kontaiguzu?

Garagarrillaren 18xa zan. Nik 17 urte izango nittuan. Donostiako lau gizon dotore etorri ziran bezperan. Gure etxian lo egin eta hurrengo egunerako bazkarixa enkargau euen Aizkorriko tontorrian. Zelakua baiña! Langostia, ardaurik onena, txanpainik onena... Han fan nin-tzan bihor bat eta asto bat kargautu jan-edanakin, mahai-xakin... Mexiko aldiar diru asko eginddakuak ei ziran.

Bestalde, Reyes Korkostegiren bittartez Peru Saroin be gobernadore eta bestelako agintarixendako hamarretakuak eta bazkarixak be emuten gittuan; Fraga Iribarneri, bestiak beste.

Ustebariko bisitta bat be euki zebein Goiko Bentan.

Bai. Reyesek egin oskun enkar-



gua. Pertsona inportante bat etorriko zala, baiña zein zan esan barik. Francoren señoia zan, Carmen Polo. Basilikia ikustera etorri zan eta geurian bazkaldu eben. Etxe dana guarda zibillez inguratuta euki geben. Sukaldera be sartu ziran, lapikuari begira, zer jan bihar eben ikustera. Baba gorrixa eta oillaskua jan zittuan. Bazkalostian Carmen bera hurreratu zan sukualdera, gure amari eskua emutera, gustura egon zalako.

Zela ikusten dozu Arantzazu gaur egun?

Jente asko dabil Arantzazun. Garai batian, Errosarixotik aurrera etzan animarik ikusten,

“

Bazkari berezi bat zerbitzatu neben behin Aizkorriko tontorrian, langosta eta guzti. Mexiko aldiar diru asko eginddako lau donostiar ziran

ARANTZAZUKO AUZO-ETXIA

Batzarrak egitteko ez ezik, auzuan ezbiharren bat (sutia...) gertaketan zanerako ebalten zan auzo-etxia. Eskolia be bertan jasoten euen Arantzazuko neska-mutikuek. Migel Miztegi be hortxe ikasi eben, Aita Lasarekin. 1950eko hamarkadaren akaberan eraitsi zan auzo-etxia, aparkalekuak egitteko; 60.000 pezetatan baloratu zan etxia, eta diru hori Kortakogaiñeko auzo-etxe barrixa jasoteko eballi zan orain dala bi urte.

baiña gaur egun, eguraldixak pittin bat lgunketan badau, edozein egunetan ikusten da jendia. Elizia be bete egitten da domekero. Beste kontu bat da, zer gertatuko dan konbentuarekin: fraidiak edadian aurrera doiaz, eta eztago erreleborik, eztago bokaziñorik.

Baserri maillan be, antzera. Geu izango gara azkenetako ganaderuak. Mendixak eta basuak be, ezta kitt. Lehen ederki kontserbaitten gittuan, baiña orain galduaz doiaz. Parkia dala eta jarri dittuen neurri asko kalterako dirala uste dot.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

eta beste hainbat gauza...

☎ 943 905 740 - 663 384 052

✉ lurgorridenda@gmail.com

AFARI SOLIDARIOAK



Parrokiako Misio Taldeak esku artean dituen elkartasun proiektuetarako diru iturri nagusia izaten dira afari solidarioak. Urtean lau antolatzen dituzte, eta ia 6.000 euro inguru batzen dituzte.

A benduaren 16an egin zuten afarikoa da goiko irudia. Hirurogeita hamar bat lagun elkartu ziren, ohi bezala. Eta menua ere ohikoa: patata-tortilla eta letxuga, sagardo pittin batekin bustita.

Horixe da, funtsean, afari solidarioa. Ekimen sinplea, baina eraginkorra. Mahaikide bakoitzak borondatea jartzen du, eta afari bakoitzeko 1.200 euro inguru batzen dituzte (afarira joaterik izan ez duten herritarren diru ekarpenak ere jasotzen dituzte). Eta horixe izaten da Parrokiako Misio

Taldeak esku artean dituen elkartasun proiektuak finantzatzeko diru iturri nagusia. “Urtean lortzen dugun diruaren erdia, gutxi gora behera, afari solidarioetatik ateratzen dugu” azaldu digu Misio taldeko Jose Antonio Urteagak.

Urtean lau afari

Urtean lau afari antolatzen dituzte: otsailean, ekainean, urrian eta abenduan. Tarteka afari extraren bat ere antolatu izan dute, emergentzia edo diru premia bereziren bat sortu delako. “Oñatin bizi den domini-



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA





kar komunitateak eskatuta antolatu izan ditugu afari extra batzuk, momentuko behar konkretuei erantzuteko” argitu digu Urteagak.

Bidaurretako fraideen jantokia izandako aretoan egiten dituzte afariak eta etxetik eramandako 30 bat patata-tortilla jaten dituzte, letxugarekin, eta herriko sagardogileek emandako sagardoarekin bustita.

Afalostean, bertaratu diren herritar guztiei eskerrak eman ondoren, esku artean dituzten proiektuen inguruko informazioa ematen dute. “Kariben eta Perun Karitateko Mertzedarrien elkarteko osasun arduraduna den Mari Carmen Markuletak bidaltzen digun gutuna irakurtzen dugu, eta misiolariaren bat Oñatin baldin badago, bere esperientzien berri ematera

Patata-tortilla eta letxuga izaten da menua, eta mahaikide bakoitzak borondatea jartzen du. Bidaurretako fraideen jantokian egiten dira afariak.

etortzen da; bestela, parrokoak edo geuk ematen dugu informazioa” azaldu digu Urteagak.

Abenduko afarian batutako dirua Haitira bideratuko dute, M^a Carmen Markuletaren bidez, *Matthew* hurakanaren kalteei aurre egiten laguntzeko. Urtarriletik aurrera Malira (Afrika) begira jarriko dira berriz, *Saint Paul* ikastetxean dauden ikasleentzako jatorduak garantizatzeko helburuarekin. “41 euroekin ikasle bakoitzari egunean otordu bat ematea lortzen dugu kurtso osoan; eta 61 euroekin, egunean bi aldiz. Datozen bi urteetan zehar 25.000 euro inguru bidaltzea da gure asmoa, Mali Elkartasuna (bertako kide da Oñatiko parrokoa) taldearen bitartez” aurreratu digu Urteagak.

Hurrengo afari solidarioa

otsailean izango da. Irekia da. Edozein herritar joan daiteke.

160.000 euro hamabost urtetan

Azken hamabost urteetan 160.000 euro inguru bideratu ditu Misio taldeak elkartasun proiektu ezberdinetara. Hala, Dominikar Errepublikan 10 etxetxo eraiki dituzte; Argentinako *Queta* komunitatearentzako ur azpiegitura egokitu dute; Haitin osasun zentro bat (*Jacmel* herrian) eta bi eskola (*Marbial* eta *La Serre-n*) eraiki dituzte; Kolonbian harrera zentro bat egokitu dute; eta Afrikan (*Benin*) eskola bat jaso eta gosearren aurkako kanpainak burutu dituzte, batzuk aipatzearen.

Urtean zehar antolatzen dituzten lau afari solidarioez gain, inauterietako txokolatada antolatzen dute, eta Herri Eguneko bazkaria zerbitzatu izan dute diru baliabideak lortzeko. Gabonetako kontzertuan eta Pake Lekuko antzerki taldearen emanaldietan ere egiten dituzte diru bilketak, eta Oñatiko udalaren nahiz Ulma Taldearen dirulaguntzak ere jasotzen ditu Misio taldeak.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



#TerritorioFelicidad

Emprende el viaje más importante de tu vida (Grupo Planeta) liburua argitaratu du Juanma Quellek (Oñati, 1966). Bidaiatzeko gida bat da, egileak dioenez; gure bizitzako bidaia inportanteena egiten lagunduko diguna, zoriontasunaren bila. Zoriontsu izatea geure esku dago eta ezin dugu gerorako utzi. Horixe uste du Quellek, eta bere esperientzia pertsonaletik abiatuz, bizitza osoago bat lortzeko eta zoriontasuna praktikatzeko hainbat estrategia eskaintzen ditu liburuan.

‘Zoriontasunaren aktibistak izan behar dugu’

Kontzeju | 16 | petic

Orain dela hiru urte, 50.000tik gora langile dituen enpresa publiko bateko zuzendari komertziala zen Juanma Quelle. Eta aurretik beste hainbat enpresatako direktibo ere izan da. Bizitza profesional arrakastatsua izan du. Baina 2014an, estresaren ondorioz baja hartu behar izan zuen, eta pentsatzeko denbora asko izan zuen. Bere bizitzaren norabidea aldatu behar zuela erabaki zuen, bizitza honetan gauzarik inportanteena zoriontsua izatea delako; “zoriontsu izatera etorri gara bizitza honetara, eta ezin gara despistatu”. Jende askorentzat lagungarria izan daitekeelakoan, liburu batean bildu ditu Quellek bere esperientzia eta hausnarketak. Espainian eta Latinoamerikan argitaratu da eta hilabeteen agortu da lehen edizioa.

Bizitza profesional arrakastatsua izan duzu, baina horrek ez omen du zoriontasuna bermatzen.

Ez. Nire aitak askotan esaten zuen: ‘ez da aberatsagoa gehien daukana, gutxien behar duena baizik’. Eta egia da. Bajan egon nintzen garaian askotan errepikatzen nion neure buruari: ziurtatu, lortu nahi duzun horrek merezi duela bidean galtzen ari zarena.

Kontua da, gaur egun gurpil batean bezala bizi garela, (*La rueda del hamster* deitzen diot nik). Abiada bizian doan gurpila da, inora eramaten ez zaituena. Estresatuta bizi gara, piloto automatikoa jarrita, eta ez dakigu disfrutatzen inguruan

dauzkagun gauza txikiez. Ez dut esan nahi uko egin behar zaionik arrakasta profesionalari, baina oreka bilatu behar dugu. Zuregatik esan dezaketen bakarra “profesional ona izan zen” bada, seguruenik lan txarra egin duzu zure bizitzako gaintontzeko alderdiekin.

Tarea edo eginkizun zerrenda bat baino gehiago da bizitza. Arrakasta ez da gauza guztietara iristea, daukazuna bizitzea baizik.

Erraza ematen du, baina, hala ere, gutxik lortzen dute zoriontsu izatea. Zergatik?

Ez garelako pentsatzera gelditzen. Ez dakigulako garbi zein den gure zoriontasunaren mapa.



Zoriontasuna praktikatu egin behar da. Beste edozein gauzak bezala dedikazioa eskatzen du; dedikazio aktiboa, konstantea eta kontzientea

Zoriontasunaren zain pasatzen dugu bizitza: “ikasketak amaitzen ditudanean...”, “haurrak handitzen direnean...”, “jubilatzen naizenean...”. Eta oker gabiltza. Zergatik egon behar dugu amaiera politaren zain, hasieratik izan bagaitezke zoriontsu?

Zoriontasuna praktikatu egin behar da. Beste edozein gauzak bezala, zoriontasunak ere dedikazioa eskatzen du; dedikazio aktiboa, konstantea eta kontzientea. Zoriontasunaren aktibistak izan behar dugu. Eguneroko bizitzari zoriontasun une batzuk irabaztea da gakoa. Hori lortzen badugu, gure zoriontasunaren koefizientea asko igoko da.

Tamalez, oso materialistak gara, eta ondasun materialak pilatzen pasatzen dugu bizitza horrek zoriontasuna ekarriko digulakoan.

Bai, eta akats handia da, nire ustez. Zoriontsu bizitzeko ez da behar etxebizitza handia, familia-giroa baizik, eta hori ez

da metro kuadrotan neurtzen. Garrantzitsuena ez da zenbat erloju daukazun, zeuretako daukazun denbora baizik. Garbi izan behar dugu, garenagatik garela zoriontsu, eta ez dauka-gunagatik.

Liburuan esaten duzu beldurra dela zoriontasunaren etsai nagusia, eta aurre egin behar zaiola. Nola?

Biziraupenarekin zerikusia duten beldurrek bakarrik dute zentzia. Beste beldur guztiak soberan daude: erridikuloa egiteko beldurra, porrot egiteko beldurra, niregandik espero den maila ez emateko beldurra...

Beldur horiek ez daukate zentzurik. Ez dira gurekin jaio; handitzen goazen neurrian gizarteak buruan sartzen dizkigun beldurrak dira, eta horrek kezkatzen nau, mugatu egiten gaituztelako. Pentsa dezagun une batez: zenbat ordu pasa ditugu beldurrez, sekula gertatu ez den zerbaitengatik?

Beldur horiei adarretatik heldu eta zentzurik ba ote duten pentsatu behar dugu. Eta esperientziatik esan dezaket, beldur bat gainditzen duzun

momentuan, beste denak gainditzen ikasten duzula.

Zoriontasunerako bidea errazagoa omen da fisikoki eta mentalki osasuntsu egonda

Bai, esaldi horren atzean gauza asko daude. Jendeak ez dio behar beste garrantzia ematen atsedeneri, eta deskubritu dut oinarritzkoa dela. Oso serio hartu beharrekoa.

Bestalde, askotan esaten dut, geure barrurantz irekitzen den atea dela zoriontasuna. Hau da, zoriontsu izateko geure burua ordenatu behar dugu aurrea; garbi izan behar dugu zein den geure zoriontasunaren mapa (zerk egiten gaituen zoriontsu); emozioak gestionatzen (batez ere nagatiboak) ikasi behar dugu; zoriontasuna kentzen diguten pentsona "toxiko"ngandik aldentzen jakin behar dugu; erabakiak hartu behar ditugu...

Buruko higiegi kontua da. Liburuan azaltzen ditut horretarako hainbat estrategia.

Ilusioa omen da zoriontasunerako giltza.

Bizitzako erregaia da ilusioa.

Zoriontasuna gure barrurantz irekitzen den atea da; hau da, zoriontsu izateko geure burua ordenatu behar dugu aurrea



Automotibatzen ikasi behar dugu, eta ilusioa da motibazioaren benetako iturria. Motibatuta egotea ez da egoera animiko bat, erabaki bat baizik, egunero hartu beharreko erabakia, bai eguzki egunetan eta baita egun ilunetan ere. Horretarako, ilusioa pizten diguten aktibitateak, pertsonak, lekuak... identifikatu behar ditugu.


Nori dago zuzenduta liburua?

Aldaketa prozesu batean mugilduta dagoen edozein pertsonarentzat da lagungarria. Liburuaren aurkezpen ekitaldietan irakurleen *feedback*-a jasotzea gustatzen zait, eta ikusten ari naiz jende askori laguntzen diola. Erraz ulertzeko moduan dago idatzita liburua, ahalik eta jende gehienengana iristeko, eta egiari zor, oso harrera ona izaten ari da. Sentimendu asko dago liburuan.

Azken mezua?

Ezin dugu gerorako utzi zoriontasuna. Zoriontasuna, zure zoriontasuna, ezin daiteke gerorako utzi. Zoriontsu izatera etorri gara bizitza honetara; ezin gara distraitu.

Gogoetak hausnarketarako



Liburudenda gehienetan eskura daiteke Juanma Quelleren liburua 13,95 €-tan.

- 'Ziurtatu, lortu nahi duzunak galtzen ari zarenak baino gehiago merezi duela'
- 'Pentsamenduak ez dira dohainik bizi gure buruan; edo indartu egiten zaituzte, edo ahuldu'
- 'Gaur janzea pentsatzen duzun erropa guztietatik arreta berezia eskaini bati: jarrerari. Hori da eguna baldintzatu ahalko dizun bakarra'
- 'Motibatuta egotea ez da egoera animiko bat, erabaki pertsonal bat baizik; egunero hartu beharrekoa, bai egun eguzkitsutan, eta baita ilunetan ere'
- 'Inportanteena ez da zenbat erloju daukazun, zeuretako zenbat denbora daukazun baizik'
- 'Nor bait zoriontsu egin gura baduzu, ez eman ondasunik, gutxitu desioak'
- 'Besteek zutaz pentsatzen dutenak kezkatzen zaituen bitartean, haien menpe zaude'
- 'Denok ditugu bi bizitza. Bigarrena hasten da, bizitza bakarra daukazula konturatzen zaren egunean'
- 'Zailena ez da berriro hastea, betikoari amaiera jartzea baizik'



Karitateko ahizpak badoaz Oñatitik

Beraien omenezko liburu bat prestatzen ari dira, eta herritarren kolaborazioa eskatu dute argazkiak lortzeko



Gaur egun 11 ahizpa bizi dira San Martin egoitzan. Sor Elena, Sor Ino eta Sor Lourdes falta dira argazkian.

150 urtez oñatiarren zerbitzura lan egin ondoren Karitateko mojak joan egingo dira Oñatitik aurtengo udaberrian. Hori dela eta, herritar talde bat omenaldia prestatzen hasi da esker ona adierazteko Karitateko ahizpen elkarteari.

Omenaldiarekin batera liburu bat ere argitaratuko dute, karitateko mojek mende eta erdi luzean Oñatin egin duten ibilbidea eta lana jasoko duena.

Eta liburu hori osatu eta aberasteko, ahalik eta argazki gehien bildu nahi dituzte; ospitale zaharrean egon ziren garaikoak, Milagrosa eskolakoak, Etxaluzekoak edo San Martin egoitzakoak izan daitezke. Karitateko ahizpekin zerkusia duen edozein argazki. “Herritar askok izan dute, modu batera edo bestera, harremana karitateko mojekin, eta ziur gaude Oñatiko etxe askotan egongo direla beraien argazkiak, eskola garaiko talde argazkiak eta bestelakoak” azaldu digu liburua koordinatuko duen Iñazio Irizarrek. “Argazkien bidez liburuan ahalik eta herritar gehien agertzea nahi dugu, ahalik eta herrikoiena izatea nahi dugu, mojei esker ona adierazteko modu bat baita”. Beraz, argazkiren bat duten herritarrei San Martin egoitzako harrerara eramatea eskatu du Irizarrek. Gero, itzuli egingo dira argazki guzti guztiak.



Irizar eta Agirrebengoa, omenaldiaren bultzatzaileak

“Liburuan ahalik eta argazki gehien, eta ahalik eta herritar gehien agertzea nahi dugu. Beraz, argazkiren bat duten herritarrei San Martin egoitzako harrerara eramatea eskatzen diegu”

Liburua elebiduna izango da, eta 1992an Sor Leonor Puente karitateko ahizpak idatzitako tesina (*Historia y evolución de la Residencia San Martín*) eta aita Jose Ignacio Lasak 1965/66an egoitzari buruz Goi Argin idatzitako artikulua jasoko ditu, besteak beste.

Liburuaz gain, omenaldi ekitaldi bat ere egingo zaie karitateko ahizpei udaberri aldera. Hau ere ahalik eta herrikoiena izatea nahi dute sustatzaileek, Carlos Agirrebengoa azaldu digunez. “Herriko ahalik eta eragile gehienek (abesbatzak, dantza taldeak, musika eskolak, bertso-lariak...) parte hartzea nahi genuke”.

Karitateko mojak Oñatin

Karitateko ahizpen komunitatea 1864an iritsi zen Oñatira. Haur eta gaztetxoei eskola emateaz gain, ospitale zaharreko ardura izan zuten, umezurtzei eta babes gabeko herritarrei laguntza berezia eskainiz.

1966an ospitale zaharra botatzea erabaki zen, institutua eraikitzeko, eta residentzia berria eraiki bitartean, karitateko mojak eta gaixoak Etxaluzetxean egon ziren, hamabi urtez, Agustinoek utzitako eraikina egoitza bezala prestatu ondoren. Ospitaleko eskolak Santa Marina plazara eraman ziren (Milagrosa ikastetxea) udalak utzitako lokaletara.

1974az geroztik San Martin egoitzan bizi dira Karitateko ahizpak, eta bertako egoitzaren ardura izan dute urte guzti hauetan. Gaur egun 11 ahizpa bizi dira komunitatean.



Urgain

ESKOLA

*Guztiona guztion artean
kalitatezko, euskaldun ta publikoa,
lau zutaberen gainean eraikia
herriaren neurrikoa*

*Txiki-Txokotik, Larrañara,
ur gainean egindako bidaia,
Errekalde ta Zuazola
bizitzaren ikasgaia.*



Txiki-Txoko gunea



Errekalde gunea



R.M. Zuazola gunea



**Larraña gunea
HHI-EPA gunea**

! Matrikula: urtarrilak 30etik otsailak 10era

! Ate irekiak:

! Errekalden, urtarrilak 28, 17:00etatik aurrera

! Informazio bilera Zuazolan:

! Urtarrilak 31, 18:00etatik aurrera

! Matrikula Txiki-Txokon:

! Urtarrilak 9tik 13ra

www.urgain.eus

Antropologoa da Jone Miren. Gizarte Antropologiako eskolak ematen ditu Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ikertzailea ere bada. Lasarte-Orian jaio zen eta bertan bizi da, tarteka kanpoan egonaldi laburrak egin baditu ere. Lau seme-alaben gurasoa da.

Zer moduz joan zen afari tertulia?

Ni oso gustura egon nintzen. Giro lasaia eta atsegina egon zen, bai afaldu aurretik bai afarian zehar. Solasaldi aberatsa suertatu zen, batez ere bertaratu zirenek galdera eta hausnarketa interesgarriak planteatu zituztelako. Afaria, janaria, mimoz prestatuta zegoen eta horrekin ere asko disfrutatu nuen.

Euskara gai izanik zer aipatu zenuten afarian?

Gai asko eta mamitsuak egon ziren mahai gainean. Gehienak emakumeak eta euskararekin lotutakoak (emakumeek historikoki euskararen garapenean izandako papera, andereñoen figura, hika-nokaren erabilera, Oñatiko emakumeak eta euskararen erabilera...), baina baita ere gazteen erabilerarekin zerikusia dutenak, edota eskola, hezkuntza eta irakaskuntzarekin harremana dutenak. Oñatiko euskarak ere bere tartea izan zuen.

Zeintzuk dira Euskararen erronka nagusiak gaur egun?

Erronka asko, maila eta izaera ezberdinetakoak ditu euskarak,



Jone Miren Hernandez / Antropologoa

“Gizarte-antropologiak ekarpen oso interesgarria egin dezake euskararekin lotutako kezka eta galderei begira”

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira afari-tertulia interesgarria egin zen Makalena elkartean, udalak eta herriko ikastetxeek antolatuta. Euskararen ibilbidea genero ikuspegitik aztertu zuen Jone Miren Hernandez antropologoa, euskararen berreskurapenean, irakaskuntzan eta jarraibidean emakumezkoek izan duten papera aztertuz. Hona Txantxiku Ikastolako ikasleen TTAK euskara taldeak egin zion elkarriketa.

zalantzarik gabe. Ez naiz ausartzen esatera zein den inportanteena edo urgenteena, baina hau da nire kezka: euskaraz eta euskaratik sortzen jarraitzea, gure aurretik beste batzuk egin zuten moduan.

Zer nolatan sartu zinen hizkuntza-antropologiaren esparruan?

Eskara ez zen nire familia hizkuntza, gurasoek ez zekitelako. Baina txikitatik euskararekiko errespetua eta miresmena jaso nuen etxean. Denborarekin euskararen munduarekiko interesa areagotzen joan zen, horretan murgildu

nahi nuen, hobeto ezagutzeko, hitzegiteko, eta euskarak eskeintzen dituen aukeraz ere disfrutatzen: literatura, musika... Gazte garaian orduko musika talde euskaldunen letrak ulertu eta ikasi nahi nituen. Interes hori, apurka apurka esparru akademikora ere zabaltzen joan zen eta hizkuntzarekin loturiko fenomeno ezberdinak ikertzen hasi nintzen. Aurrerago nire doktore tesirako gaia euskararekin lotuko nuela erabaki nuen. Garai horretan gizarte antropologiaren arloan ikasten ari nintzen eta hor deskubritu nuen disziplina horrek hizkuntzarekin loturiko adar bat biltzen zuela bere baitan, hizkuntza-antropologia alegia. Nire burua hor kokatzea erabaki nuen. Gaur egun, uste dut hizkuntz-antropologiak ekarpen oso interesgarria egin dezakeela euskararekin lotutako kezka eta galderei begira.

ARRIZABALAGA Aroztegia
Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA Okindegia
Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labean

EHUn irakasle izanik, ikusten al duzu ikasleengan euskarekiko joerarik? Zer nolakoa? Jakin badakit unibertsitatean kezka zabaltzen ari dela ikasleengan euskararen erabilera eskasa dela eta, oso euskara gutxi entzuten dela gazteen ahotik. Euskaraz ikasten ari dira unibertsitatean ere, baina apenas ez dute erabiltzen, ez gela barruan ez gelatik kanpo. Halere, oraingoz gutxi ikertu da fenomeno hori, eta datu gehiago beharko genituzke zehaztasunez hitz egiteko. Gizarte antropologiaren kasuan, orokorrean euskara asko entzuten da gure geletan. Gure ikasle gehienak herri euskaldun eta txikitakoak dira. Euren egunerokotasunean euskaraz egiteko joera dutela esango nuke nik, eta hori unibertsitatean igartzen da.

Saltsa askotako perrexila zara (feminismoa, bertsolaritza, emozioak) kontatu diezaguzu zertan aritu zaren. Beno nire ibilbide pertsonala,



Hogei bat lagunek parte hartu zuten Makalena elkarteko afari-tertulian

“Unibertsitate mailan kezka zabaltzen ari da; ikasleek euskaraz ikasten dute, baina apenas erabiltzen dute euskara, ez gela barruan ez gelatik kanpo”

profesionala eta akademikoa beti egon da bi gai nagusiekin lotuta: hizkuntza (euskara) eta feminismoa. Bi mundu horietan murgildu naiz eta, egun ere, horietan jarraitzen dut lanean. Baina, argi dago, denborarekin nire kezkak, interesak eta ikuspegia aldatzen joan direla. Horregatik, eremuak azkenen-

go 25 urteotan antzekoak badira ere, ñabardurak joan naiz gehitzen eta esperientzia guztietatik ikasitakoa baliagarria gertatu zait nire bidea zehazten joateko. Enpresa pribatuan egin dut lana, udal bateko teknikaria izan naiz, orain irakaslea naiz. Horretaz aparte proiektu askotan parte hartu dut eta hitzaldi zein ikastaro asko eman ditut. Guzti honekin izugarri ikasi dut, tartean, pertsona oso interesgarriekin egoteko aukera izan dudalako. Eta bereziki, horretan saiatzen naiz beti, edozein aukeraz baliatzen ikasten jarraitzeko.

Oñatiko prezio onenak !!!

www.italde.com



207.500 € + IVA + BEZ

- 3 logela (90 m² erabilgarri)
- Sukaldea guztiz jantzita
- Logelako armairuak barne

KURTZEKUAN

italde

Ramon Irizar kalea • Tel. 943 78 27 07



Euskararen kalitatearen Urrezko *Bikain* ziurtagiria lortu du Txantxiku ikastolak

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak eta Bikaintasunerako Euskal Fundazioak ematen duten *Bikain* ziurtagiria jaso du Txantxiku ikastolak. Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen dituen kanpo ebaluazio honetan goren mailako puntuazioa lortu du ikastolak, euskararekiko duen konpromiso sendoa aitortuz. Aurten 50. urteurrena ospatzen ari den Txantxiku ikastolak pozik jaso du errekonozimendua, eta kalitatezko euskararen alde lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du.

OÑATIKO IX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Trikitx-entzat bi sari nagusiak

Trikitx, paper eta jostailu dendak irabazi ditu aurten erakusleaho lehiaketako bi sari nagusiak: epaimahaiarena (1.500 txantxi) eta herritarrena (500). Epaimahaiako hiru kideek 1etik 10era puntuatu dute konposizioa, kolorea, argia eta originaltasuna, eta lehen saria oso argi egon omen da. Gainerako sarietan aldiz, berdintasun handiagoa egon omen da. Bigarren saria (1.000 txantxi) *Bellotzak* jaso du, hirugarrena (500) *Urtxinek*, laugarrena (300) *Kimuk* eta bosgarrena (200) *Dór*-ek. Sari berezia (500 txantxi) ere *Bellotza*-rentzat izan da, herriko moneta soziala egokien nabarmentzeagatik.



Lierni Altube (*Trikitx*) lehen saria jasotzen. Behean, saritutako guztiak, udal ordezkariekin



#LEKAITXOKA argazki lehiaketa



Kilometroak-2017ko lantaldeak **#lekaitxoka** argazki lehiaketa jarri du martxan sare sozialetan. Taldeka, banaka... nahi den moduan har daiteke parte. Txokolatea eta Kilometroak-2017 ardatz hartuta, *selfie* edo argazki bat ateratzea da kontua. Besterik ez. Saria Txokolateixako produktuz osatutako saski eder bat izango da. Parte hartzeko, atera argazkia eta zintzilikatu Kilometroetako *Instagram* edo *Twitter* kontuetan, edo bidali km17argazkiak@txantxikuikastola.eus helbidera urtarrilaren 13a baino lehen. Argazkiaren originaltasuna eta konposizioa hartuko dira kontuan irabazlea aukeratzeko.

Odol ateraldiak-2017

Oñatiko odol emaileen elkarteak 2017ko ateraldien egutegia zehaztu du. MUko Enpresagintza fakultatean izango dira ateraldiak, 17:00-19:00.

- Urtarrilak 13
- Otsailak 10
- Martxoak 10
- Apirilak 7
- Maiatzak 12
- Ekainak 9
- Uztailak 7
- Abuztuak 7 (autobusa)
- Irailak 8
- Urriak 6
- Azaroak 10
- Abenduak 1

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urmeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

**Ikastolak
hezkuntza
eraldutzen**



ixutu *proiektua* 0-6

Kiva aurkezpena Lehen Hezkuntzako gurasoentzat

Urtarrilaren 18an arratsaldeko 18:00etan izango da Santa Ana antzokian

Txantxiku ikastolaren eredu pedagogikoaren aurkezpena

Urtarrilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan

ATE IREKIAK

Urtarrilaren 27an arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Santa Ana eraikinean:

- **Yolanda Arrieta** ipuin kontalariaren bi saio egingo ditugu: 17:15ean eta 18:00etan.
- **Haur Hezkuntzako gunea ikusgai** egongo da eta bisita gidatuak egingo dira.
- **Informazio guneak** jarriko dira, elkarrizketa pertsonalak egiteko aukera egongo da.
Beste egunen batean elkarrizketa pertsonala egin nahi izanez gero, 943781204 telefonora deitu edo txantxiku@ikastola.eus helbidera idatzi eta hitzordua zehaztuko dugu.



Kale garbiketa zerbitzuaren arduradun lanpostua betetzeko deialdia

Oposizio lehiaketa bidez udal plantillan hutsik dagoen kale garbiketarako arduradun plaza betetzeko deialdia egin du udalak. Urtarrilaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak. Eskola graduatua, B motako gida baimena eta produktu fitosanitarioen oinarrizko mailako aplikatzaile karneta eskatzen da, eta euskarari dagokionez 3. hizkuntz eskakizun maila. Udalaren webgunean dago ikusgai baldintza zerrenda osoa.

Imersoren termalismo programa

Imersoren Termalismo programan izena emateko epea zabaldu da. Bainuetxeren batera otsaila eta abuztua bitartean joateko urtarrilaren 13a baino lehen eman behar da izena. Irailtik abendura bitartean joan nahi dutenek maiatzaren 12ra arteko izen-emate epea dute. Informazioa eta izen-ematea: www.imerso.es / 901109899



2016ko kirolari onenak

Arg.: Angel Barrena

Xabier Murgiondo txirrindulariak jaso du aurten kirolari onenaren saria. Gipuzkoako rankineko onena eta Euskadiko hirugarrena izan da. Yera Varela eta Iokin Garai korrikalariak ere aipamen bereziak jaso dituzte. Talde onenaren saria gazte mailako txirrindularientzat izan da, eta entrenatzaile onenarena pilota saileko Sergio Uriarterentzat. Beste hiru errekonozimendu ere egin ditu aurten udalak: 50 urte bete dituen Aloña Mendiko txirrindularitza sailari, eta 25 urte bete dituzten Oñatiko Dualtloiari eta Oñati-Lizarra mendi zeharkaldiari. Bestalde, iazko urtarrilean zendu zen Juan Carlos Elorza ere gogoratu nahi izan du udalak, eskubaloia alde egindako lana aitortuz. Azkenik, herritarren sarirako hautagaiak ziren Ane Erostarbe, Garazi Erostarbe eta Xabier Gordoaren artean, azken hau gailendu zen botoen %56,35ekin.



Gabon Festa Eguneko Zentroan

Urteroko ohiturari eutsiz gabonetako jaia ospatu zuten Eguneko Zentroan abenduaren 28an, zerbitzua erabiltzen duten herritarren senideekin batera, eta musika eskolako trikiti taldeak girotuta. Aurten hiru plaza gehiago hitzartu ditu udalak Diputazioarekin (guztira 28), eta une honetan beteta daude plaza guztiak, eta 20 laguneko itxaron zerrenda dago.

Oñati beti izan da
dabilen herria
hau da zuen udalak
duen aldarria
herrigintza da biltzen
gaitun lokarria
urtea bukatzeko
zorian irria
bide beretik betor
datorren berria

*Oñatiko Udalak
gabon jai zoriontsuak
eta urte berri ona opa dizue!!*



OÑATI
dabilen herria

UDALA BERTATIK BERTARA

Udala gertutik ezagutzeko ate irekien saioa

'Oñati dabilen herria' irudi berria aurkeztearekin bat udalaren jarduna herritarrengana hurbiltzeko asmoa agertu zuen udal gobernuak. Erabaki honen ekimenetako bat izango da udaletxean egingo den bisita gidatua.

Bisita gidatu honen bidez aukera eman nahi da herritarrek udalaren eguneroko jardunera gerturatzeko, eta bertatik bertara udaletxearen egoitza desberdinak bisitatzeko, tartean, pleno aretoa, alkatearen bulegoa edo udal artxiboa.

Ate irekien saioa urtarrilaren 28an izango da, larunbata, eta euskaraz izango da. Goizeko 11:00etan udaletxeko arkupetan izango da hitzordua. Alkateak eta hainbat zinegotzik egingo diete harrera bisitariei eta saioa gidatuko dute. Bisita 12:30tan amaitzea aurreikusten da.

Gehienez ere 15 pertsonako taldea osatuko da, eta interesatuek lekua erreserbatu beharko dute urtarrilaren 9tik 23ra bitartean ondorengo bideak erabiliz:

- udaletxeko harreran aurrez aurre
- 943.78.04.11 telefonoan
- partaidetza@onati.eus helbidean

Erretserban interesatuen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa jakinarazi beharko dira.

Izen ematearen hurrenkera errespetatuko da. Leku libreak gaintutuko balira, beste bisita egun bat antolatzea baloratuko da.



OÑATI
dabilen herria

Urtarrilaren 28an izango da
ate irekien saioa (11:00-12:30).
Interesatuek lekua erreserbatu
behar dute urtarrilaren 9tik 23ra

AGURTZANE ileapaindegia

AGURTZANE ileapaindegiak, **V. urteurrena** dela eta, eskerrak eman nahi dizkie bezeroei erakutsitako konfidantzagatik, eta bide batez, Urte Berri On opa dizue.

Urte Berri On!

Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44

**BOSTGARREN
URTEURRENA**



Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Roberto Zabarte (Oñatiko Sare)

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Esker onez

Mari Carmen Urrutia

O rain dela berrogeita hamar urte gure gurasoek *Garby* izeneko denda jarri ziguten Kale Zaharrean. Nire ahizpa Maria Jesusek hogeitau urte zituen, eta nik hemeretzi. Han ekin genion gure ibilbideari, ilusioz, kemenez eta atrebentzia apur batez. Izan ere, garbi esanda, ezjakintasuna ere ausarta delako batzuetan. Aurtengo abuztuan, 2017an, berrogei urte beteko dira Etxaluzeko *Urrutia Emakumeak* denda ireki genuela, eta tarte horretan oñatiarren laguntza izaten jarraitu dugu.

Alabaina, orduan hasitako lanari orain amaiera iritsi zaiola esan behar dizuet penaz. Hori dela eta, herritar guztioi eskerrak eman gura dizkizuet luzaroan erakutsi diguzuen konfiantzarengatik, zuek gabe gure dendak ez baitzuen hainbeste denboran irauterik izango. Eta, jakina, mila eta mila esker urte guzti hauetan lankide izan ditugun gure neskei.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko denoi!

Futbol saileko Gabonetako zozketa

Aloña Mendiko Futbol sailak Gabonetan antolatutako zozketako zenbaki sarituak hauek izan dira: 1189 (gabonetako saskia); 0899 (itsaski jana); 3948 (afaria Zelai Zabalen). Zenbaki saritu guztien jabeak agertu dira. Lehen saria Susana Aiastuiri egokitu zaio. Argazkian dago bera saria jasotzen. Futbol sailak eskerrak eman nahi dizkie zozketa aurrera ateratzen lagundu duten herritar guztiei.



Gabonetako plater tiraketa

Pago Uso elkarteak antolatuta, Gabonetako plater tiraketa jokatu zen abenduaren 24an Txopekuan, 15 plateretara. Guztira 39 tiratzailek parte hartu zuten eta Juan Bautista Manzano izan zen irabazlea 14 plater jota. Gero, hiru sailkapen egin ziren: Pago Usoko bazkideen artean Jose Antonio Guridi nagusitu zen, 12 platerekin, eta elkarteko bazkide ez direnen artean Javier Vera 13rekin. Kanpoko tiratzaileen artean Javier Orunak eraman zuen lehen saria, 14 plater jota. Saritan 17 otar eta 16 produktu lote banatu ziren.



caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Elkartasun azoka.

Esker onez.

Isma Zubia eta Leire Barbero
(Elkar Hezi ikastetxea)

A benduaren 18an egin zen Elkartasun Azokan batutako dirua errefuxiatuekin lan egiten duten proiektu batean Elkar Hezi ikas-komunitateko taldetxo batek zuzenean parte hartzeko erabiliko da. Ikasle, guraso eta langileek egindako gozoen salmentarekin eta txosnan batutakoarekin 1.500 euro lortu ziren. Gainera, Gurasoen Elkarrekin beste 500 euroko ekarpena egin zuen. Guztira 2000€.

Hurrengo hilabeteetan aipatutako taldetxoak aurrera eramango duen boluntariotza esperientzia definitu eta komunikatuko da.

Eskerrik asko modu batera edo bestera ekimen honetan parte hartu eta lagundu duzuen guztioi.

OÑATIKO INAUTERIAK – 2017



INAUTERIETARAKO ENTSAIOAK urtarrilaren 10ean hasiko dira

Aurtengoan otsailaren 25ean ospatuko dugu Oñatiko Inauteria, herriko kaleak kolorez eta umorez alaituz. Egunean bertan egingo diren dantzak ikasteko entseguak asteartetan (20:00) eta larunbatetan (12:00) izango dira. Lehenengo entsegua urtarrilaren 10ean izango da, Oñatz dantza taldearen Errekaldeko lokalean. Animatu eta parte hartu!

Oharra: 16 urtetik gorakoek soilik parte har dezakete (2001ean jaiotakoak). Dantza egin nahi ez duenak pertsonaia bezala parte hartzeko aukera dauka.

📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Amaia Arzamendi



Uribarri auzoa eta Oñati lainoetan.

ARAZOA EZ DA TRUMP

Egia da hauteskunde eguna baino hilabete batzuk lehenago bazeudela nolabaiteko abisuak, baina jende askok galdetzen dugu ia nola den posible, pertsona batek eduki dezakeen balio negatibo guztiak bereganatzen dituen tipo bat (arrazista, misogino eta matxista, harroputz, hipokrita, gezurti, makarra...), komunikabide gehienekin kontra edo kontatu gabe, Ameriketako Estatu Batuetako presidente izatera heltzea.

Trump-en garaipenean (nahiz eta Clinton-ek 2,5 milioi botoko aldea ater) sakoneko arrazoiak aurki ditzakegu. Ameriketako Estatu Batuetan, beste



Luis Guridi

hainbat herri industrializatueta gertatzen den bezala, globalizazio/mundializazio prozesuak milioika pertsona utzi ditu baztertuta eta horrek, egonezin nabaria sortu du horiengan han eta edonon.

Esklusio horrek egoera aproposa sortzen du diskurtso okerrenak sustraitzeko eta indartzeko gizartean. Oso erraza da errudun bat seinalatzea (beltzak, etorkinak, mexikarrak, islamiarrak edo asiarrak), eskusio horren benetako arrazoiak eta erantzuleak aurkitu ordez. Bakar bakarrik falta da arduragabeko boteredun elementu mediatiko bat agertzea.

Okerrena ez da izendatu duen gobernua (eskuin muturrekoa eta arrazistak eta aldaketa klimatikoa ukatzen dutenez osatua) edota egingo duen politika. Hauteskunde kanpainen esandako neurri asko ezingo ditu segur aski aurrera eraman, utziko ez diotelako, eta bera ere agian ez da denbora asko egongo presidente. Adierazgarriena, penagarriena, arriskutsuena eta beldurgarriena da konprobatzea bere diskurtsoa gizartean sustraitu dela eta, egoerak laguntzen badu, zein erraz zabaldu daitezkeen horrelako diskurtsoak gizartean ikustea. Eta ez bakarrik Ameriketako Estatu Batuetako barne hirietan, Europan ere bi adibide garbiak ikusi ditugu *Brexit* eta *Austriako* hauteskundetan. Frantziakoak hortxe bertan daude. Trump ez da arazoa, adierazle bat baizik.



URTARRILA, URTE-HILA

Urtarrila. Urte berri baten hasiera adierazten digun hila. Lehenengoa, hasiera-puntura herrestan eramaten gaituena. Gabonak amaitzean berriro errealitate gordinera tsunami batek kolpatuta bezala jaurtitzen gaituena. Gaizki irten direnak aldatzeko momentua; errepidean baikinodoazen lez, kotxearen abiadura-pedala zapaldu eta, hurrengo bihurgunean, aukera berriek itzarongo gaituzten uena. Bridget Jonesek bezala, urte berriko proposamenak koadernoan jasotzeko ordua, nahiz eta azken finean, gutxi batzuk bakarrik egi bihurtu. Zer den "kimu berriak" ereiteko garaia edo



Amaia Aranzeta

Elkarrekin esnatzeko ordua iritsi izana, bi amets, bata bestearekin gainezartzen direnak paperezko hegalak bezalaxe. Beti esan ohi dugu "aurten....." zerbait hobea, handia, harrigarria gertatzeko esperantza dugunean, eta nik galdetzen dut baina, aurten zer? Zer aldatuko da, zer gertatuko da?

Tamalez, gauza askok oster, urte zaharrea lez jarraituko dute, Siriako gerra, pobrezia edo emakumeenganako biolentzia adibidez. 2016ko urtarrilean iada 11 emakume izan ziren erailak estatu

Espainiarrean. Siriako gatazkak 470.000 hildako utzi ditu oraingoz, eta pobrezia eta baztertze arriskuan daudenen portzentaia gorako joera erakusten du. Datuak horrela, errealitatea hain krudela eta zoria izanda, aurten zer geratzen zaio gizakiari guztiz libre, aurrera jarraitu dezan? Zein bizipoz edo zirrarak esnatuko gaitu, ametsak ere lapurtzen bait dizkigute lo garela?

Ez dakigu aurten zer etorriko den, hau denboraren igarobidean ezkutatuta baitago. Baina, agian, idatziko dira eleberri berriak non, gizarte hobea bat deskribatzen duten, eta dena ederragoa bihurtzea posible dela ikusiko dugu. Bitartean, ahal den eta ondoen hasi dezagun eta aurten zer beharrean, gogoz saiatu.

>> HAUR ETA GAZTEAK

GURE EKINTZEN BERRI EMANGO DUEN ATALA...

- Arazerixan -

2016an Oñatiko haur eta gazteentzako zerbitzuek eman dizkiguten irudiak:



ARGAZKIAK: ludoteka, udalekuak, bertakotze haur eta gazteak, kuboa eta topalekua.

2017an ere atea zabalik izango ditugu. Animatu eta hurbildu!

Urte berri on!



SERGIO URIARTE / Kirol teknikari onenaren Oñati Saria

“Pilota sail osoarentzat da saria”

Atxabaltarra sortzez, orain dela bost urte etorri zen Oñatira bizitzera. Aloña Mendiko Pilota sailaren ardura bere gain hartzea proposatu zioten, eta bost urteren buruan irauli egin du egoera, noraezean zegoen pilota saila biziberrituz. Goiko argazkia horren lekuko. Oñati Kirol Saria jaso zuen abenduaren 23an

Zer sentitzen da goiko argazki horri begiratuta?

Poz handia. Lana ondo egiten ari garen seinale. Ez bakarrik ni, pilota sailean gauden guztiok baizik. Ni egunero egoten naiz hemen, gazteak entrenatzen, baina atzean ere ikusten ez den lan asko egin behar izaten da; Mikel Perezek, Mikel Tatiegik, Iñaki Biainek... eta beste batzuk ere lan asko egiten dute.

Josu Osak egiten duen lana ere azpimarratu egin behar da. Beti dago laguntzeko prest, eta niretako oso inportantea da.

Teknikari onenaren Oñati Kirol Saria jaso duzu. Pozik?

Polita da halako errekonozimendu bat jasotzea, baina, berriro diot, pilota sailarentzat da saria. Nire izena agertzen da, baina atzean talde-lana dago;



Sergio Uriarte Oñatiko Kirol Saria jasotzen Borja Mouiaren eskutik

bestela, ezinezkoa izango zen hau guztia nik bakarrik egitea.

Garai batean, pilota utzi eta beste kirol batzuetara jotzen zuten gazteek. Orain, aldiz, pilotaren aldeko hautua egiten dute askok. Zein da sekretua?

Nire aldetik, konpromisoa. Aloña Mendiko pilota sailak konfiantza jarri zuen nigan, eta nik agindu nuen gauza bakarra konpromisoa izan zen; hemen nagoen bitartean konprometitu

egingo naizela, gauzak hobeto edo okerrago joan, azkenengo egunerarte.

Gustatu egiten zait gazteekin lana egitea, eta saiatzen naiz talde-giro ona sortzen eta dinamikoa izaten. Inplikatu egiten naiz, eta neska-mutikoek ere baloratu egiten dute hori. Baina inportanteena, esan bezala, talde-lana da, eta ilusioa jartzea.

86 neska-mutilekin ari zara lanean. Kantitatea bistan dago. Kalitatea da orain erronka?

Gehienak gaztetxoak dira oraindik, eta inportanteena disfrutatzea da. Edozein modutan, pilotan oso ondo jokatzen duten neska-mutikoak daude gaztetxoaren artean. Belaunaldi oso polita da.

Emaitzak lortzen ere hasi zarete, ezta?

Bai, iaz final laurdenetan sartu ginen herri arteko txapelketan. Bestalde, Ander Biainek Errenteriako txapelketa irabazi zuen, eta beste hainbat txapelketatan ere aurrean ibili da. Iñigo eta Ibon Perez final 1/4etara iritsi ziren Gipuzkoako txapelketan, eta banaka hiru pilotari sartu dira final 1/8etan...

“**Egoki egindako talde lanaren emaitza da pilotak gaur egun bizi duen une goxoa**”



Argk.: Angel Barrena

50 urte betetzen ditu Pilota Sailak

Hasi berri dugun urte honetan urrezko ezteiak ospatzen ditu Aloña Mendiko Pilota sailak. Hori ospatzeko, ekitaldi ezberdinak egongo dira urtean zehar. Zehaztu barik dago oraindik egitaraua, baina, besteak beste, 50 urteko ibilbidea jasoko duen bideo bat grabatuko dute, erakusketa bat eta hitzaldi sorta bat ere egongo da, eta Ipar Euskal Herriko pilota jokoen (joko garbi, bote luze...) erakustaldi bat ere antolatuko dute, besteak beste, ekaina aldera.

Iaz final 1/4etara iritsi ginen herrien arteko txapelketan. Aurten zer?

Iaz baino talde hobea dugu. Kadetetan eta gazte mailan edozeini aurre egiteko moduko bikoteak ditugu. Beraz, zorte pittin bat baldin badaukagu zozketan, iazkoa berdintzeko edo hobetzeko moduan egon gaitezke.

Igor Mugarza, Gipuzkoako azpitxapeldun krosean

Aloña Mendiko korrikalariak lan bikaina egin zuten abenduaren 11n Arraten jokatu ziren Gipuzkoako kross txapelketetan. Hala Igor Mugarza bigarren sailkatu zen Infantil mailan, eta Dayber Losada zumarragarra ere bigarrena izan zen Promesa mailan.

Bestalde, brontzearekin konformatu behar izan zuten Aitor Monasteriogurenak, Kadete mailan, eta Martin Amilibiak, seniorretan. Azpimarratzekoa, baita ere, Eider Irizarrek lortutako bosgarren postua.

Taldekako emaitzak ere oso onak izan ziren. Gazte mailako taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen, eta senior nahiz beterranoen mailakoa azpitxapeldun geratu zen.



Txuriurdirin, egun batez

Ekain Gorgoñon gazteak Realaren Infantil mailako taldearekin jokatu du Gabonetako txapelketa bi talde frantziarren aurka. Jokatutako bi partiduak irabazi zituzten txuriurdinek, eta Ekainek gol bat sartu zuen. Aloña Mendiko ohorezko Infantil mailako taldean ari da Ekain, erdiko aurrelari postuan, (tarteka Kadete mailako taldean ere jokatzen du), eta urtean zehar egindako lan onaren saria izan da Realetik jaso duen deia.

Bi oñatiar saritu ditu txirrindularitza Federazioak

Xabier Murgiondo eta Garazi Erostarbe saritu ditu Euskadiko Txirrindularitza federazioak denboraldi amaieran. Lau garaipen eta zortzi podiumekin denboraldi bikaina osatu du Murgiondok, eta gazte mailako rankineko hirugarren onena izan da. Aurten afizionatu mailako Ampo taldean ariko da. Bestalde, Caja Rural taldean aritu den Garazi Erostarbe ere Kadete mailako rankineko hirugarren postuan sailkatu da, besteak beste Gipuzkoako errepideko txapelketa irabazita, eta erlojupeko Euskadiko txapelketan bigarren sailkatuta.

Sei domina eta gerriko beltz bat karatean

Aloña Mendiko karate saileko neska-mutilek sei domina lortu dituzte kirol eskolako Gabonetako txapelketan. Aimar Martinek eta Iker Jimenezek urrezko dominak kolokoratu zituzten, Iker Garciak eta Alazne Unzurrunzagak zilarrezkoa, eta Soraya Selak eta Joseba Guridik brontzezkoa.

Bestalde, aipatu beharra dago, Gazte mailako Asier Natividad karatekak gerriko beltza 1º Dan maila lortu berri duela.





Kamera izkutuekin
Oñatiko kaleetan
grabatutako txantxa
edo bromak eta
zuzeneko esketxak
eskainiko dituzte

'txantxakale'

Irazan antzerki taldeko gaztetxoek gala berezia, urtarrilaren 7an

'Txantxa' eta 'Kale'. Izenak berak argi adierazten duen moduan, kalean grabatutako txantxak edo bromak izango dira Irazan taldeko gaztetxoek eskainiko duten gala bereziaren ardatza.

Telebistan ezaguna egin den formatuari jarraituz, kamera izkutuen bidez grabatutako txantxak dira, egoera xelebreetan nola erreakzionatzen dugun erakusten dutenak, errespetutik beti ere, baina ondo pasatzeko asmoz.

11-15 urte arteko hamasei gazte dira protagonistak. Irazan antzerki guneko gazteen taldeko kideak, eta ilusio handiz prestatu dute ikuskizun berezi hau. Maiatzean hasi ziren lanean, eta asko ikasi dutela aitortu digute; "aktore lanaz gain, gidoiak prestatu, baimenak eskatu, grabazioak egin... Gauza asko egin behar izan ditugu, eta oso aberasgarria izan da guretzako". Iker Zubiaren laguntza izan dute kamerekin.

Kalean grabatutako txantxez gain, zuzeneko esketxak ere egingo dituzte urtarrilaren 7ko galan. Zozketa bat (ikusleen artean) eta sorpresak ere izango omen dira. Oso dinamikoa izango da eta, beraz, gonbitea hortxe dago. Protagonistak gazteak dira baina helduei zuzendutako ikuskizuna da.



TXANTXAK
herriko kaleetan,
parkinean eta
saltoki batean
grabatu dituzte,
besteak beste



SARRERAK
Txokolateixan eta
Gaztelekuan
daude salgai
3 eurotan.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 beheka, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com



Almaraz

Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat **saldu** edo **alokatu** nahi baduzu, **dei** iezaguzu".

ERAIKUNTZAN, OREKA BILATUZ

erreforma eta interiorismorako aukera berria Oñatin

> Marian Sanchez oñatiarrak eta Julian Aranegi arrasatearrak, **Oreka** izeneko **erreforma eta interiorismo** denda zabaldu berri dute Euskadi Etorbideko 3ean. Biek ala biek, urte askotako esperientzia daukate sektorean. Aurrez, beste enpresa batzuetan lanean aritu ostean, elkarren ezagutza eta ilusioa bateratu, eta gogotsu ekin diote proiektu berri honi. Biekin hitz egiteko aukera izan dugu.



Nolatan sortu da Oreka izeneko enpresa berri hau?

Julian eta biok urte asko generamatzen sektore honetan lanean. Ni arrasateko altzari enpresa batean eta Julian herriz, itxi berri den Zelaian aritu da azken 27 urteetan. Ikasketaz eta lanbidez eraikuntzaren munduko pertsonak gara biok eta aukera hau sortu zitzaigunean, ez genuen birritan pentsatu.

Zer eskaintzen duzue?

Orekan, eraikuntzari loturiko lanak egiten ditugu. Proiektuaren diseinutik hasi, eta obra integral bateraino. Hala ere, edozein erreforma txiki edota egokitzeak ere eskaintzen ditugu. Betiere, gure lanen ezaugarri nagusia Oreka bilatzea delarik. Gremioen koordinazioan,

materialen aukeraketan eta epeetan, zentzuz jokatzeko gustatzen zaigu bezeroari ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Zer nabarmenduko zenuke zueen eskaintzatik?

Bezeroaren beharretara egokitzen garela. Obra txiki batetatik, erreforma integral baterainoko esparrua lantzen baitugu. Aurrekontuen araberako lanak izaten dira.

Sukaldeetan esaterako, azken belaunaldiko materialekin lana egiten dugu. Merkaturako lehiakorrenetarikoak dira. Eta gure beste ezaugarri garrantzitsu bat, elektrogailuetan dago. Erosketa berrietan, 24 ordutako bermea eskaintzen diogu bezeroari. Erosi eta hurrengo egunerako jarrita izan dezake,

bere etxean hornitzaile indartsu batek eskaintzen digun sistema berritzaile bati esker.

Denda berria izan arren, bezero zerranda luze batekin hasi omen zarete.

Bai hori da. Aurrez esan bezala, Julianek urte asko egin ditu Zelaian lanean eta gure dendak kokaleku bera mantentzen duenez, bertan genituen bezeroei arreta zerbitzua eskaintzen jarraitu nahi dugu. Urte askotako elkarlana izan da eta orain proiektu eta bide berri bat hasi badugu ere, Zelaia bezero zirenei, edozein arazoren aurrean, gugana jotzeko gomendioa egingo genieke. Euskadi Etorbidean daukagun 150 m²ko erakusketan, gure oinarriak ikus daitezke.

“ Etxetresna elektrikoetan 24 ordutako bermea eskaintzen diogu bezeroari erosketa berrietan”

“ Zelaia bezero ziren herritarrei, arreta zerbitzua eskaintzen jarraitu nahi dugu”

Zer esango zenieke oñatiarrei?

Etxebizitzetan egiten dituzten lanei dieten beldurra kentzeko. Normalean obrak kostu ekonomiko handia izaten dutela uste da eta iruditzen zaigu, gauza polit asko egin daitezkeela sekulako dirutza xahutu gabe.

Zalantzen aurrean, denda-tik pasatzeko gomendioa egingo genieke herritarrei. Kasua aztertu eta inongo konpromisorik gabe aurrekontua egingo baitiogu.



oreka

REFORMAS - INTERIORISMO

Euskadi Etorbidea 3 • Tel.: 943 902 009
orekainteriorismo@yahoo.com



LOLI ORDOKI

Bihotzez eta Arimaz

Abesbatza, pianoa, organoa, gitarra edo orkestra lagun, Loli Ordokik bakarleri moduan abesten duen 19 kanta bildu ditu CD batean *ausArt Records* diskoetxeak



Txokolateixan, Turismo bulegoan eta Hirukar dendan eskura daiteke CDA 10 eurotan

Durangoko azokan aurkeztu zuen diskoa *ausArte Records* diskoetxeak. Loli Ordokiren ibilbide luze eta oparoari egin nahi izan dion erre-konozimendua da. Garai ezberdinetan egindako grabazioetatik eta zuzeneko emanaldietatik aukeratutako 19 kanta, zein baino zein ederragoak. Formato ezberdinetan abestutako kantak dira: Oñati Abesbatzarekin, Madina laukotearrekin, pianoak lagunduta, organoak, gitarrak, orkestrak... baina guztietan Loli entzungo dugu bakarleri. Aita Madinarenak dira kanta gehienak (*Aita Gurea, Seaska kanta, ...*), estimu berezia baitio Lolik Zubillagako musikagile handiari; baina José de Azpiazu, Jose Mari Arzuaga, T. Garbizu eta J.M. Usandizagaren doinuak ere jaso dituzte, Loliren ahots ederrean. Kantuan ez ezik, musika-irakaskuntzan eta koru-zuzendaritzan ere lan handia egin du Lolik, musikarako zaletasuna zabalduz beti ere, eta ondo merezia du berari eskainitako disko eder hau.

Sendabelarrak eta kosmetika naturala



Udaleko Kultura sailak antolatuta, Senda-belarrei eta kosmetika naturalari buruzko ikastaroa hasiko da urtarrilean. *Ekoudalatx* mintegiko kideek gidatuko dute tailerra. Bi orduko zazpi saio izango dira (ostegunetan, 17:00. Besteak beste, ukenduak, bainurako gatzak, ezpaintedako baltsamoak, etxerako botikina eta xaboi naturala egiten ikasiko da. Prezioa: 25,50€. Urtarrilaren

9tik 13ra eman behar da izena kultur etxean.

Ipuin kontaketa, urtarrilaren 26an



Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, 6-9 urteko neska-mutikoei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da udal liburutegian urtarrilaren 26an (18:00), Amaia Arriaranen eskutik. Hilaren 16tik aurrera banatuko dira gonbidapenak.

MENDI IRTEERAK

Muru-Asentzio mendi

URTARRILAK 15

Urtarrilaren 15ean egingo da urteko lehen irteera Aloña Mendiko Mendi sailaren eskutik. Aretxabaletan abiatuta, Muru eta Asentzio-mendi igo ostean, Apotzagan amaituko da (12 km, zailtasun barik), eta bertako aterpean bazkaria egozango da. Irteera goizeko 8etan. Izen-ematea: urtarrilaren 12a baino lehen. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da parte hartzeko.



2017ko MENDI IRTEERAK

URTARRILAK 15

Aretxabaleta-Muru-Asentzio-Apotzaga

OTSAILAK 19

Mañaria-Errialtabaso-Urkiola-Mañaria

OTSAILA: Nibologia ikastaroa Piriniotan

MARTXOAK 19

San Roman-Mirutegi-Ballo

MARTXOA: Eski travesia Piriniotan

APIRILAK 16

Bernedo-Peña-La Población

MAIATZAK 21

Oleta-Leziaga-Santa Cruz koba-Aramaio

EKAINAK 18

Ultzama-Okolin-Katoliko harria-Berroeta

UZTAILAK 15-16

Infiernos (Batximaña aterpean lo eginda)

IRAILAK 17

Oñatiko Mendi Martxa

URRIAK 15

Gaintza-Hirumugarrieta-Gaintza (Aralar)

AZAROAK 19

Horca-Vallegrull-Herran (Valderejo)

ABENDUAK 17

Azpeitia-Erlo-Xoxote-Kakuta-Azpeitia

Maiatzean GPS ikastaroa egingo da.

Azaroan, Mendi Hamabostaldia eta

XIV. Argazki Lehiaketa

IKAS KOMUNITATEA ELKAR HEZIZ EREITEN

Fruitu egoki eta ugariak jasoko badira, herri edo komunitate osoa inplikatu behar da heziketan

• Zer dira IKAS KOMUNITATEAK?

Helburu bikoitza duen ikastetxea da: alde batetik ikasle denek beraien gaitasunak ahal den eta gehien garatzea, ikasketa maximoa lortuz. Bestetik, hau, elkarbizitza ona bermatuz egitea. Horretarako hezkuntza jarduera arrakastatsua ezarri ditugu.

• Zer dira JARDUERA ARRAKASTATSUAK?

Nazioarteko hezkuntza komunitate zientifikoak egiazta- turik, edozein testuingurutan emaitza onak lortzen dituz- ten jarduerak dira. Jarraian bakoitzaren inguruko xehetasunak dituzue. Informazioa gehiago, www.elkarhezi.eus webgunean.



5 urteko haurrak tertulia literario saioan parte hartzen

AMETSA

Ikastetxea Ikas Komunitate bihurtze bidean ezinbestekoa da komunitatea osatzen dugun guztiok Amets egitea, honako galderari erantzunez: zer ezaugarri izan behar ditu gure ametsetako ikastetxeak? Ondoren bildutako Amets guztiak gaika sailkatu eta hauen artean lehenetsunak ezarri genituen. Orain, lehenetsitako Ametsak gauzatu ahal izateko, Batzorde Mistoak eratuz dihardugu komunitateko kide desberdinen elkarlanean.

TERTULIA DIALOGOAK

Tertulia pedagogikoen bidez etengabeko formakuntza egiten dugu irakasle eta familiok elkarrekin.

Literatur Tertulietan klasiko unibertsalak irakurtzen dira. Saio hauen bitartez berdinen arteko irakurketa bultzatzen da, irakaslea/ikaslea maila berean daude, guztion ekarpenak aintzat hartzen dira hausnarketa berrien atea zabalduz. Gizarte eredu berri bat eraikitzeke dauden baliabide baliotsuenak eskaintzen dizkiegu: askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna eta iritzi kritikoa besteak beste.

TALDE ELKARRERAGILEAK

Talde elkarreragileak gela antolatzeke era bat da: ikasleek, talde heterogeneotan banatuta, hainbat jarduera burutzen dituzte boluntario baten gidaritzapean. Honen lana ikasleen arteko elkarreragina bultzatzea da. Gidari boluntario papera guraso, aitton-amona, ikasle ohi edo prest dagoen edozeinek egin dezake.

LIBURUTEGI TUTORIZATUAK

Liburutegi tutorizatuak, Ikaste- txeko erabilera ordutegia zabaltzean datza, dituzten lanak egiten dituzte boluntario baten gidaritzapean.

GATAZKEN PREBENTZIOA

Gatazkak prebenitzeko eta bideratzeko, eredu dialogikoa erabiltzen dugu, elkarrizketan oinarrituriko eredu, 0 urtetik 0 biolentzia lortzeko bidea erakusten digularik.

“Norbanakoaren dohainetatik abiatuz, guztien bikaintasuna helburu”



Geuk egiñ dogu geure aukeria, ELKAR HEZI

ATE IREKIXAK:

Bisita gidatua eta proiektuaren aurkezpena

Hurtzaindegia zerbitzua egongo da

Egitarau osoa www.elkarhezi.eus webgunian

Hurtzaindegia, HH. eta L.H. Arantzazuko ama 18/ 943 71 82 72

DBH eta Batxilergoa: Santa Marina 2/ 943 78 28 70

Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko: 943 71 82 72

ILBALTZAREN
29xan
(URTARRILA)
DOMEKIA
11:00etan



AGENDA

01

URTARRILA



BERTSO SAIOAK

> **URTARRILAK 5 / 22:30**

ERREGE BEZPERAKO SAIOA

Bertsolariak: Andoni Egaña, Urko Arregi, Oihana Iguaran, Andoni Goitia, Sustrai Colina eta Sebastian Lizaso. Gai-jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola. Zubikoa kiroldegian.

> **URTARRILAK 20 / 19:00**

ESKORIATZA, ZARAUTZ ETA OÑATIKO BERTSOLARI GAZTEAK BIKOTEKA

Elkarren artean lehiatuko dira. Epaimahaia publikoa izango da eta saioaren amaieran luntxa egongo da. *Gaztetxean*.

KONTZERTUA

> **URTARRILAK 6 / 12:45**

MUSIKA BANDA

Kalejira (11:00) eta kontzertua (12:45) Santa Ana antzokian.

BISITA BEREZIA

> **URTARRILAK 7 / 10:30**

ARRIKRUTZ

Bisita berezia eta tailerra gure historiaurrea ezagutzeko.

PAILAZOAK Irrien Lagunak

> **URTARRILAK 8**

GAZTETXEAN, 18:00

Aurten ere, bosgarren aldiz, Irrien Lagunak taldeko pailazoak etorriko dira Antixena gaztetxera. Oraingoan Dj Martinbertso eta Ane pirata etorriko dira. Sarrera: 5€ (2 urtetik beherakoak doan). Gaztelekuan eta Kiku goxoki dendan salgai

ANTZERKIA

> **URTARRILAK 29 / 17:00**

MARI KIXKUR ETA HIRU HARTZAK



Glu-glu taldearen ikuskizun berria. Santa Ana aretoan. Sarrera: 3,50€ (www.bibe.me).

KONTZERTUAK

> **URTARRILAK 5 / 22:00**

SUMISION CITY BLUES



Blues, folk, country eta rock doinuak Gasteizko taldearen lehen lan luzearen aurkezpen kontzertuan. *Gaztetxean*.

> **URTARRILAK 7 / 22:00**

GUARDIA ZIBEEER kontzertua



'Gaztetxean 'Guardia Zibeer' garagardoa ekoizten duen jendeak antolatuta. *Pornox* (Lekeitio), *Sofo-Kaos* (Antsoain) eta *Frenetik* (Agurain) punk-rock taldeen eskutik. *Gaztetxean*.

> **URTARRILAK 21 / 22:00**

LIE DETECTORS

Eskarmentu handiko musikariz osatutako taldea, zeresan handia ematen ari dena rock panoraman. *Gaztetxean*.

> **URTARRILAK 27 / 22:30**

GARBANTZUAK + GUDA

DANTZA + EGURRA TA KITTO

Garbantzuak Oñatiko taldeak bere proiektua aurkeztuko du. Ondoren, *Egurra ta kitto* eta *Guda Dantza* ska taldeen kontzertua. *Gaztetxean*.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



JAIALDIA

> URTARRILAK 28 FESTI FEMINISTA

Oraindik zehaztu gabe badaude ere, jarrera feminista duten taldeak igoko dira oholtza gainera. Giro feministaz gozatu eta parranda egiteko aukera. [Gaztetxean](#).

IKASTAROAK

> **KZ GUNEA / URTARRILA**
'Wikipedia'; 'Google aplikazioak'; 'Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi'; 'Gmail. Posta elektronikoa baino gehiago'; 'Google aplikazioak'; 'Lan bilaketa interneten'; 'Android sistema eragilea'; 'Sare sozialak'. Informazioa: 943 023672 / onati@kzgunea.net.

ANTZERKIA 'Francoren bilobari gutuna'

> URTARRILAK 22 SANTA ANAN, 19:30

Artedrama (Bizkaia), *Dejabu Panpin Laborategia* (Gipuzkoa) eta *Le Petit Theatre de Pain* (Lapurdi) taldeen antzezlan berria ikusteko aukera izango dugu Santa Ana antzokian. Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da 'Francoren bilobari gutuna' lana. Sarrerak (10 euro) www.bibe.me atarian eskura daitezke.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK

> **NEGUKO GIDA** Urtero bezala, Gabonetako oporren atarian liburu gomendagarrien gida argitaratu du Udala Liburutegia, eskualdeko gainerako liburutegiekin batera. Hizkuntza eta eduki aldetik kalitate aipagarria duten liburu, CD eta DVDak bildu dituzte, adinka sailkatuta. Liburutegian bertan edo www.onati.eus webgunean kontsulta daiteke gida.



MERKATU TXIKIA

- > **Etxea salgai.** Babes ofizialeko etxebizitza salgai Ugarkalden. 3 logeladuna, trasteleku eta garaje irekiarekin. 145.000 euro + altzariak. Interesatuak deitu: 688 617 360.
- > **Soziosanitario** arloko titulatu euskalduna naiz, eta esperientzia daukat etxeko laguntza zerbitzuan. Orduka lan egiteko prest egongo nintzateke. Deitu: 635 74 50 83.
- > **Garaje itxia salgai** Ugarkalde auzoko 5-6 atarian. 18m2. Interesatuak deitu: 647515257 / 610751017.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Urtarrilak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urtarrilak 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22, 30 eta 31..

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urtarrilak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urtarrilak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

B.P. 547/15
PSICOLOGIA ZENTROA
ROSA RUEDA
Zubillaga Auzoa, 20
943 04 74 06
psicologia-rrueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

ANTSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-Igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



IITEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Hausnarrian

'Euskaldunak dirua egitten dau, baiña ez euskerarik!'

Bittoriano Gandiaga



Ez kikilldu, ez lotsatu

Zarrau atia!

Gure ahoskeran 'itxi atia' eta 'itxi liburua mahai gaiñian' bardiñak dira, fonema bixak neutralizatuta dagoz-eta. Testuinguruak argiketan dosku lehenengo 'itxi' cerrar dala eta bigarrena, berriz, dejar. Nahasketak ebaitteko, hizkuntziaren funtziño nagusixa komunikaitia dan ezker, hemengo jentia 'cerrar' esanguriarendako 'zarrau' aditza hartu eben, erderazko berbia hemengua bihurtuaz.

Horra hor praktikotasuna zela nagusittu xakon purismuari! Horregatik, aditz horreik idazterakuan bereizi egingo dittugu 'itxi atia' 'tx' grafemaz idatzizax eta 'itzi egidak bost euro' 'tz'-az.

Hala ta be, 'itxi' aditza beste kasu eta modu askotan be ebalten dogu: *tabernia itxitta dago; ulixaren hizkeria itxixa da; itxituria jasotera fan dira.*

Orduan, badakitzue, iñork esaten badotsue "zarrau atia" euskera zelebria dala, **emun azalpena eta ez kikilldu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin.**

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|---------------------------|------------------|
| 1. Arrosinka | A. Nagiak bota |
| 2. Botaguria | B. Aurpegia |
| 3. Txintxiña edo ittojiña | C. Aharrausika |
| 4. Nagixak etara | D. Negar malkoak |
| 5. Mosua | E. Goragalea |
| 6. Negarmarkuak | F. Itokina |

Zein auzotan dagoz -be/pe atzikiagaz osotutako baserri honeik?

- | | |
|-----------------------------------|-----------------|
| 1. Aizkorbe Azpikua eta Goittikua | a. Arantzazun |
| 2. Aittape | b. Araotzen |
| 3. Sustiabe | c. Araotzen |
| 4. Aldabe | d. Olabarrietan |
| 5. Jaturabe | e. Olabarrietan |
| 6. Añube | f. Olabarrietan |
| 7. Zapiarbe (Unaiñena) | g. Larrañan |

EUSKERAZ EGOGI

Jo dost*

Indikatiboko *nor-nork* eran konjugaitten diran aditz gehixenak *nor-nori-nork* eran konjugaitten dittugu, esaterako: *ikusi dotsut**, *eruan dotsut**, *egurtu dotsut**, *maite dotsut**. Orainguan dakarguna era honetako akats tipikua da. Fijau gaittezen zela esan biharko litzakien:

Aitta semiak sukaldian barriketan:

- Aitta, maisuak jo egin dost*.
- Jo egingo zauen?
- Bueno, bai jo egin nau.
- Eta zela jo zau, ba? Nik entzunda dakot gaur egunian ja *eztaueilla joten*.
- Bueno, jo, jo... *enau jo*.
Besua altxau dau eta belarrondokua emun bihar nostanian makurtu egin naiz eta bere hanka artetik alde egin dot.
- Ederretik librau haiz, orduan!
- Bueno, bazkalostian diar egingo xat eta berba-ordua eskatuko xat barkamena eskaketako.

Ikusi dagigun Candido Izaguirreren hiztegixak be, 195. or. dakarren ejenplua: *Ostikuaz jo naxok = Ostikuagaz jo naixok (nau, hitanuan) = Me ha dado una patada.*

ERANTZUNAK
-Billatu berba honein sinonimuak
1c, 2e, 3f, 4a, 5b, 6d
-Zein auzotan dagoz -be/pe
atzikiagaz osotutako baserri
honeik?
1b, 2d, 3f, 4e, 5c, 6g, 7a



Maroña

Behin baño gehixagotan ekarri dittugu sail honetara **maixu maristen** kontuak. Jakiña danez, XX gizaldixan berrogeta hamarren bat urtian erakutsi euen gure herriko unibersidade zaharrian M. Champagnat-ek Frantzian sortutako ordena-ko irakasle honeik. Hori bai, bi alditan banatuta: 1903tik 1928ra eta 1939tik 1963ra, tartian Oñatin 2. maillako institutu-
tua jarri eta 1936ko gerrako garrak piztu ziralako. Eskoliori **San Migel kolejixo** moduan izentaitten zan.

Gaurko argazki honeittan erlijioso maristen eragiñez **Oñatin kirol saillian** egin ziran ahalegiñen mustratxo batzuk agertu gura dotsuegu. Aurreko hamarkadetan be ikastetxiaren programa barruan deporte eta jolas batzuetan jardun arren, 1960 inguruan gau-zatu ziran, biharbada, ekiñaldirik bikaiñenak. Urte horreitan **Simeón Izquierdo Pascual** maixu burgostarra, **Hermano Gonzalo** lez ezaguketan gebena, saiatu zan gehixen: saski-baloi, edo esku-baloi taldiak, antxintxikalarixak eta beste deporte-klase batzue-tarako partehartzailliak antolatu eta gertatu zittuan.

Kolejixo haretako ikasliakin Gonzalok **Maroña** izeneko kirol alkartia modutu eben, hau da, **Maristas Oñate**. Oñatin ez ezik, hemendik kanpora be ibili ziran lehixan gaztetxo oñatiarrak, Donostian, Beasainen eta abarretan. Esate baterako, bi fotografiax honeik Donostiako Anoetako pista zaharretan atarata dagoz 1960xan: saski-baloi taldiak txapeldun urten eben eta errelebotako antxintxika-karrerako ekipuak be bai. Honeitxek dittuzue kirolarixon izen-abizenak:

Saski-baloi taldian, goititik behera eta ezkerretik eskumara: **Felix Ugarte; Leon Lana; Fernando Mendiguren; Joxe Mari Errasti; Joxe Migel Palacios; Rafael Agirre; eta Iñaki Zelaia.**

Erreleboetako antxintxikalarixak: goixan **Leon Lana** eta **Fernando Mendiguren**; eta behian **Felix Ugarte** eta **Iñaki Zelaia**.

J. E.

Argazkixak Fernando Mendigurenek ekarrittakuak dira. Argibidiak, berriz, Fernandok berak, Joxe Antonio Urteagak eta Anton Elortzak samurtu doskue. Eskerrik asko danoi!

Oharrak: Fan dan hillian aittatu geben lehenengo Olentzero haren aurretik, besteren bat izan ei zan Oñatin. Karmelo Arabiourrutiak dioskunez, 1960ko hamarkadan agustiñuetako estudiantiak, euren tartian Lesakako Arriola bat eguelako-edo, behin Zañartu auzuan ibilli ziran, Duruango Bittor Errasti Olentzero bizidun zala. Sabino Zuazagoitiak abadiak be dixo aurreko urte batian erregie-kin batera-edo, Olerentzeroren irudiren bat kaleratu zala Gabonetan. Milla esker azalpenongatik!



**grupo
amuebladora
mondragonesa**



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 71 10 12
ARRASATE



centro hogar MUEBLES

ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11
ARRASATE



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03
ARRASATE



GUSTU GUZTIETARAKO BARNE APAINKETAK!

Gainera, 60. urteurrena dela eta deskontu bereziak ditugu. Ez galdu aukera!